

Laburbirako filmak Areatzan ikusi ahal izango dira martiaren 14an

Ekain Martinez de Lizarduyren *Prosopagnosia*, Sonia Estevezen *Plazer bat*, Eneko Sagardoyren *Betiko gaua*, Ekain Irigoiñen *Europa*, Karmele Mitxelena, Alaia Martin eta Iraitz Mateoren *Pentsatzen dut*, Jone Arriolaren *Hor konpon*, Nerea Ayala, Patricia Fañanás, David Modroño eta Iraia Yartoren *Goodbye Kepler* eta Alba Lozanoren *Utlandsk* dira ikusi ahal izango diran euskerazko film laburrak. **21. orrialdea**

2025 MARTXOAK 7 - APIRILAK 11

Euskarazko film laburren XXII. zirkuitua

MARTXOAK 14 · 19:30 · Udaletxea (AREATZA)

Faxismoaren kontrako aldarria Martiaren 8an

Arratiako Mugimendu Feministak Igorreko eta Bilboko manifestazioetarako deia egin dau.

Faxismoaren gorakada arriskutsuaren aurrean, feminismoa bere indarra erakusteko antolatu da eta aurten Martiaren 8a inoz baino politikoagoa eta aldarrikatzaileagoa izango da. Arratia, Ubide eta Zeberion, manifestazioak eta elkarretaratzeak egongo dira eguerdian, eta arrastian, lurraldeko manifestazioan hartuko dabe parte eremuko aktibistek. Gainera, urtero lez, kultura agendea jarduera feministez beteta dago. **8. eta 9. orrialdeak**



Manifestazio jentetsua Kiñu Gaztetxearen alde



Zezeilaren 21ean ehundaka arratiarrek adierazo eutsien euren babesba Kiñu Gaztetxeko asanbladeari. Izan be, apirilaren 23an, Kiñu Gaztetxeko asanbladearen eta eraikinaren jaube legala dan Sabadell Bankearen arteko epaiketea egongo da. **6. orrialdea**

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Maiatzean izango da aurten Euskaraldiaren 4. edizioa

Euskaraldiaren laugarren edizioa maiatzaren 15etik 25era izango da. Aurtengo leloak, "Elkar mugituz egingo dugu", aktibazioari, mobimentuari, emozioei eta batak bestearengan daukagun eraginari egiten deutse erreferentzia. Entidadeek izena emoteko epea zabalik dago. **5. orrialdea**

ZEANURI

Gontzal Mendibilen disko barria prest dago

Blas de Oteroren poemak musikatu eta *Hitza geratzen zait* izeneko diskoan, 13 kantu bildu ditu; 9 euskeraz eta 4 gaztelaniaz. Martiaren 15ean aurkeztuko dau Bilboko Bidebarrieta Liburutegian. Malgosia Ziemkiewicz musikari zeanurizarrak kolaborazioa egiten dau disko honetan. **11. orrialdea**

ZEBERIO

2025eko aurrekontuak onartu ditu Zeberio

Zezeilaren 21ean onartu ziran Zeberion 2025erako udal kontuak, EH Bilduren aldeko botoakaz eta EAJ-PNVren kontrakoakaz. Aurten 1.780.077 euro kudeatuko ditu Udalak.

Liburutegiaren egokitzapena eta frontoiaren konponketea dira aurten martxan ipintea aurreikusten diran proiektuetako bi. Mandoia mendi lerroan egin gura dan parke eoliko dala eta egoki jo ezker alegazioak sartu ahal izateko, aholkularitza tekniko, juridiko eta ingurumenekoa kontratatatu diru partida bat dago. Eusebio Aldekoa zaharren egoitzarako be dirua dago onartutako aurrekontuetan. **5. orrialdea**



GANGUREN
psikoteknikoa

- Gida Baimenak
- Animalia Arriskutsuak
- Nautika
- Arma lizentziak
- Segurtasun pribatua
- Garabiak

ORDUTEGIA
Asteazken eta ostegunetan
09:00 - 13:00
Astelehen, astearte eta ostegunetan
16:00 - 20:00

www.psicotecnicoganguren.eus - 611 72 88 55
info@psicotecnicoganguren.eus



GORBEIALDE
LANDA GARAPENA

ARRATIA, UBIDE ETA ZEBERIOKO
GARAPENEAN LAGUNTZEN

Literatura txokoa

KRISTO FUSILAREKIN

Amaia Apalauzak itzulia, eta Ane Irazabalen hitzaurrea daroana, Ryszard Kapuscinski kronika egile poloniarren *Kristo fusilarekin* eskatu neutsan Durangoko Azoka batean, behinola, Katakraken enroilauta dabilen Hedoi Etxarteri:

-Emon egiostek Kamiloren liburua!

Baina hara non: Camilo Cienfuegos ez da apenas agertzen.

Fedajinak bai, gaur egungo Jihad (ahalegin) sakrifikauren aurrekoak. Eurak dan-dana erakutsi gura deustie kazetariari: txikizinoa, arrain azoka abandonaua, edateko ura daukan putzu bakarra. "Argazki kamararik ez daroagula ikusirik, kezkatu geratu dira, desengainaturik. Mundu guztiak Raxidiya ikustea nahiko

leukie. Fede osoa dabe munduak entzun eta ulertuko dabezala, eta ez dirala bakarrik egongo. Euren kausa jentearen belarrietara heltea besterik ez dabe bilatzen; mundu guztiak jakin dagiala Palestina auzia hor dagoala eta jenteak galdetu daiala: —Eta zeren alde burukatzen dira palestinarak?".

Liburu aktualagorik, nekez.

Kapuscinskik ez eban inoz kazetariaren misino mesianikoan sinistu, baina argi eukan noren alde egoan: "Pobreen bizitza kontetea da nire gai nagusia. Kazetariak izan gura dozue? Orduan ezin dozue horreek alde batera itxi. Pobreak munduko populazioaren %80 dira, baina pobreak ez dauka ahotsik. Nire

betebeharra da persona horreek entzun arazotea".

Liburu hau askapen guduen gaineko kronika sorta liluragarria da, kazetaritzako erreportajea eta gatazkak gizartean daukazan ondorioen azterketa sakona, biak, batzen dituana. Prosa gustauko jatzu, ze gerraren basakeria eta kaosa perfekto laburtuten ditu. Mezu askatzailea eta indarkeria, indarkeria eta atsedean egunak... kontrastearen eta tensioaren maisua da idazlea. Birtute bat dauka: konplejutasun politiko eta humanoaren gaineko begirada zorrotzari esker, urakanaren begian bertan zagozala pentsauko dozu.

Igor Estankona



Ryszard Kapuściński

Kristo fusilarekin

Katakra, 2019

224 orrialde

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Martiaren 3tik 9ra

Rodriguez Martinez. Igorre. Agirre Lehendakaria 27
Tel.: 94 673 61 09 eta 688 635 154

22:00etatik 09:00etara

Gutierrez. Amorebieta-Etxano.

Martiaren 10etik 16ra

Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15
Tel.: 94 673 93 22 eta 609 402 908

22:00etatik 09:00etara

Ruiz Golvano. Amorebieta-Etxano.

Martiaren 17tik 23ra

Traver. Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g
Tel.: 94 631 39 50 eta 649 686 305

22:00etatik 09:00etara

Goiria Montoya. Amorebieta-Etxano.
Zeberioako ez dau guardianik egiten.

Urte osoan. 22:00etatik 09:00etara

Gometza, Ana. Francisco Kortabarria 2. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 600 74 63

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 680 19 74

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 01 85

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Arratiako Udalen

Mankomunitatea 94 631 17 17 /

mankomunitatea.arratia@bizkaia.org

Gorbeialde Landa

Garapenerako Alkartea

94 631 55 25 / *gorbeialde@gorbeialdea.com*

Areatzako Parketxea 94 673 92 79

IKE 94 673 62 51 / *kulturetxea@igorre.net*

Euskotren 94 433 33 33 / *euskotren.eus*

Areatzako Notarioria 94 673 92 26

Errota Fundazioa

688 854 543 / *info@erota.eus*

Arratiako Musika Eskola

94 631 73 52 / *www.arratiakomusikaeskola.eu*

Bizkaibus 94 612 55 55

3917 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Bilbotik. Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik

22:15era ordu. Jaiegunetan orduo

07:15etik 22:15era.

Zeanuritik. Lanegunetan: Lehenengo

05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduo: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua

22:00etan. Zapatuetan: Lehenengo

05:00etan. Orduo: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduo.

3911 Linea. Bilbo-Galdakoa

Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik

22:00etara orduo. Zapatu eta domeketan

Durangoraino.

Elorriotik. Lanegunetan 06:45etik 20:45era

orduro.

Durangotik. Lanegunetan: 07:10etik

21:10era orduo. Zapatuetan: 06:30etik

21:30era orduo. Jaiegunetan: 07:30etik

21:30era orduo.

3912 Linea. Bilbo-Ospitalea-

Lemoa-Durango-Ermua-Eibar

Bilbotik. Lanegunetan: 06:30etik 22:30era

orduro. Jaiegunetan: 07:30etik 22:30era

orduro.

Eibartik. Lanegunetan: 06:00etatik

21:00etara orduo. Zapatuetan: 06:20tik

21:20ra orduo.

Jaiegunetan: 07:20tik 21:20era orduo.

3925 linea. Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Bilbotik. Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduo.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordu behin.

Ubideitik. Lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordu behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordu

behin.

* 08:45ean, 14:45ean eta 18:45ean urteten

diran zerbitzuak Barazaren gelditzen dira.

Otxandiotik urtekerak. Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduo.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduo.

3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri (autopistatik)

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik

21:00etara orduo. Zapatu eta jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

Zeanuritik. Lanegunetan: 07:00etan lehena,

eta 08:15etik 21:15era orduo. Zapatu eta

jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

3928 linea. Artea-Zeberio-Ugao

Zeberiotik Ugaora. Lanegun eta

zapatuetan: 07:00, 08:20, 09:10*, 11:00;

11:45*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.

*Basauriraino bakarrik.

Basauritik Zeberiora. Lanegun eta

zapatuetan: 10:00, 12:45*, 19:20.

*Artearaino bakarrik.

Ugaotik Zeberiora. Lanegun eta

zapatuetan: 07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05,

14:30, 15:30, 16:30, 19:40, 20:40.

Arteatik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan:

06:50, 08:00, 14:00, 16:00.

Ugaotik Artea. Lanegun eta zapatuetan:

13:05, 15:30, 20:40.

Igorretik Ugaora. Lanegun eta

zapatuetan: 07:55ean.

Ugaotik Igorrera. Lanegun eta

zapatuetan: 07:20ean.

Zeberiotik Arrigorriagara. Jaiegunetan:

08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arrigorriatik Zeberiora. Jaiegunetan:

10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urteten

dau eta Otxandioakoak 16:00etan. Zapatuetan:

Ubidekoak 09:00etan urteten dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urteten

dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan urteten

dau Gasteizetik eta Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urteten

dau Gasteizetik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urteten dau

Gasteizetik.

Argitaratzailea: Zertu Kultur Elkartea. **Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea. **Tel.:** 94 673 90 13. **E-posta:** *begitu@begitu.eus*. **Webgunea:** *www.begitu.eus*. **Zuzendaria eta publizitate arduraduna:** Iñigo Iruarrizaga. **Tel.:** 649 979 115. **E-posta:** *inigoirua@begitu.eus*. **Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. **Tel.:** 649 979 112. **E-posta:** *beazpiri@begitu.eus*. **Erredakzinoa:** Asier Abrisketa eta Beatriz Azpiri. **Webgunearen arduraduna:** Asier Abrisketa. **Tel.:** 626 647 923. **E-posta:** *asierabrisketa@begitu.eus*. **Maketazinoa:** Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarrizaga. **Banaketea:** Garbikuzi enpresa (Dima, Ubide, Zeanuri eta Zeberio), Asier Abrisketa (Igorre), Jokin Totorika (Arantzazu, Areatza eta Artea) eta Nerea Beitia (Bedia eta Lemoa). **Tiradea:** 7.300 ale. **Inprimategia:** Bidasoa inprimatzeko zentroa. **Facebook:** Begitu Aldizkaria. **Twitter:** @BegituEus **Instagram:** @begitu.eus



Aldizkariaren edukiaren eta diseinu grafikoaren egile-eskubideak Zertu Kultur Elkartearnak dira, baina partekatu daitezke *Creative Commons Aitortu Partekatu lizentziaren bitartez (CC-by-sa)*. Beraz, erreproduzidu, banatu, jente-aurrean komunikatu, eraldatu daitezke, beti be iturria aitatzu eta egiletza aitortuz, eta baldintza horreen pean partekatuzeko.



Ale kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

Babesleak:



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kezak, eskertronak, hausnarketak, burutazioak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleei zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratutako derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48142 Artea

Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutuna:
begitu@begitu.eus

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: begitu@begitu.eus helbidera.

Zirhika

ARTELATZ ETA TXARAKIN

Hitanoagaz hasteko aholkuak (LXIII). Kale berbakunea sustatu guran

ASEGURUAK

- Aupa hi!
- Ze barri?
- Nondik **hator** ba?
- Kotxearen aseguru egitetik **ñatok!**
- Eztok** bromea gero!
- Ba dana **dok** pagatea gaur egun!
- Hori be egia **dok** bai.
- Bai, **etxakiat** zer dan hobeto: kexetea ala isiltea.
- Ahotik kendu **dostek!**
- Segidu daigula gagozan moduan, bai...
- Eztok** gitxi izango holan **bok**.
- Bueno ba hi, egongo **gozak!**
- Gorantziak familiari!
- Bai, bardin.

ERETXIA

Desazkundera eta ekofeminismoa eskutik joan daitezke?

Imajinetan dozue azkenean lortzean dogula behartutako lekualdatzeak amaitzea, eguna ez dogula erremontautu amaitzen, industria militarrek eta gorputz feminizaduen kontrako gerrea desagertzea... Eta, batez be, bizitza betearen nahiak ez gaitzala gehiago konsumidutera eroan, harremanak izateko moduak eta guztiok sostengatzen gaituan "bizitzaren sarea" (gizakiak eta ez gizakiak) jagoteko gogoa zabaltzera baino?

Ameseta dirudi, baina ez da. Etorkizun posible bat da, desazkundera egiten dauana berba, baina baita feminismoez, disidentziez, antiextraktibismoaz, errazakeriaren aurkakoaz eta dekolonialtasunaz be. Irudimen ariketa hau egiten dot, bizitza beteagoak eta duinagoak biziteko aukerak zabaldu baino egiten ez deuskuzan eraldatze proposamen bat aldarrikatzeko.

2018ko edo 2019ko M8etako leherketa feministan pentsetan badogu, ikusi daiteke arrakastaren kakoetako bat izan zala norberaren ezinegonak amorrutako kolektiboagaz lotzeako gaitasuna. Indar horrek, greba feministaren bidez, eguneroko espazioak eztabaidagune bihurtu eban, guztiari eta mundu guztiari interpelatuz eta zentzu kolektibo barri bat sortuz. Eta zentzu kolektibo honek, berba egiten eban danon artean bizitza onak lortzeaz, sailkatu gura gaituen bataila moraletatik urrun. Bada adibide bat oso ondo irudikatzen dauana hau, 2018ko grebaren prestaketa plenoetan, nire herriko andren koruak bere burua feministatzat jo eban (hilebete gitxi batzuk lehenago argi itxi ebenean hau ez joiala eurekaz). Kolpetik jada ez ziran etiketa estu batengaitik epaituak sentiduten, eta euren burua feministatzat aldarrikatzeak balio eutsen bizitza osoan egin-



JÚLIA MARTÍ COMAS

Ikertzailea eta *Decrecimiento ecofeminista*. *Desacelerar para recuperar la vida* liburuaren egilea

dako zaintzak aldarrikatzeko, eta bortizkeriei, eta agindu patriarkalek mugatutako bizitzetara, nahikoa zala inoan marea global batez bat egiteko.

Zelan egingo dogu oin koru

haretako andrek euren burua ekologizatzen joteko? Edo, oin-dino gehiago, desazkunderaren aldekoak? Lehenengoa litzateke onartzea krisi ekologikoa eta erreproduktiboa (hau da, sistema honetan bizitza erreproduziduteko eta sostengatzeko zailtasuna) eskutik doazela, biak sistema kapitalistaren kontraesan zentralak dirala, eta beraz, hori kolokan ipinteko zirrikituak be badirala. Eta beraz, proposamen alternatibo integralak behar doguzala; produkzio kapitalistaren zerbitzura dagoan zaintza sistema batek sortutako zor eta indarke-riak (patriarkalak, errazistak, klasekoak...) konpontzeaz be berba egingo dabenak. Indarra hartzean doan aldarrikapenetako bat, bizitzari eusteko modu merkantilizatu bakoak lortzea da. Proposamen hau desazkundera da argi eta garbi, prekariedadeagaz amaitzeko eta jentearen bizitzak duintzeko giltzarria izateaz gainera, pilaketa kapitalistaren orde, bizitzaren erreproduktiboa bermatzera bideratutako ekonomiarantza aurrera egiteko modua be badalako.

Gainera, gitxiago lan egiteko eta ekonomia produktiboa moteltzeko aukerea be emongo leuskigu. Horregaitik, oparotasun erradikala eta aberastasun publikoa berreskuratzea aldarrikapen feministea eta ekologistea da, eta ez dau hainbeste berba egiten mugatzeaz, ondasun komunitario sarbidea berreskuratzeaz baino, zerbitzu publikoak zabaltzeaz eta espazio komunitario eta kooperatibistak zabaltzeaz, holan gitxiago lan egin eta gitxiago zorpetu ahal izateko. Eta hori lortzeako enpresa kapitalistek mugak ipini behar deutseguz, akaparautako ondasunak desjaubetuz eta megaproiektu barriak eta inbersino funtsen poderea gelditu arazoz. Era berean, amets horreek zehazten lagunduko deuskuen esperientziak elikatu, eta bizitzari zelan eutsi gura deutsegun ebazteko modu kolektibo eta demokratikoak probetan hasiko ginatke, ekosufizientzia, ekidade eta erreparazio erispideakaz.

***Erredakzinoan itzulia**



LUMATUTEN



URTZI BARRENETXEA

Hego haizedun egunak

Txikitatik, magiadunak iruditu jataz hego haizedun egunak. Holangoetan, argiago ikusten dozu bizitza ez dala leku batetik bestera mobidutea bakarrik. Igarri zeinke egunerokoa bestelako esangurakaz beteta dagoala; une bakotzak eskinaren bat ostenduten daua, begirada barri baten zain. Gonbidapen antzeko bat dira sasoz kanpoko epel gozo horreek, betikoa itxi eta bestelako aukeren bila martxan hastekoa.

Ikastolarako autobuserantza oinez ginoiazala, geltokirantza bota beharrea, bidezidorren batetik aurrera segiduteko gogoa sartzean jatan epeltasun hori sentidu ezker. Kosta egiten zan, holangoetan, tentazinoari aurre egitea, eta, begiak zarratuta, haizea bera gidari izango balitz lez nonora joatea; ezertan pentsau barik. Barneratutako baloreakaitik, ostera, egin beharrekoaren

pisuak moztuten eban asmo bizi hori. Zenbat bider ez ete neban barru-burruka hori sentidu.

Bardin pasau izan jata ikasle sasoiak amaitu eta lanean has-tean be. Etxetik urten eta kotxera sartu orduko, eguna argituten dabilala, paseoa joateko dei erresistiduezin hori igarri dot baten baino gehiagotan; hotzikara gozoak bidelagun, errutina itxi eta errealidadeak mangapean ostenduta daukanaren atzetik joateko beharizan antzeko bat. Holango momentuetan, txikitan galdutako aukeraz gogoratu izan naz beti, eta damututa galdetu deusat neure buruari: "Orduko egunen batean egin bazendun! Dana dala, oin ezin dozu, ze lanera joan behar da, ze bilera, eta txostena, eta...".

Etxetik urten ezinik egon gitan sasoietan be, oin dala ez hainbeste, balkoian haize berezi horren etorrerea igartzean, zergaitik ez nintzan sekula atzetik joan esaten neutsan neure buruari. Eta betiko aukera galdua izan ete zan be gomutau jatan orduan. Gaur egun, ostera, kaletik ibilteko aukera normalizatura beste barik bueltauta, asmoak bete barik segiduten dau. Horretan be, ez nazela hobetuta urten igarten dot.

Hori dana dinotsut, lagun edo lankide, ze egunen baten ez banaz hitzorduren batera agertuten, argi euki dobaneko plazer txiki horrerik segiduten nabilelako izango dala. Behintzat, sensazioari kasu egin eta egunerokoaren bestaldeak merezi dauan edo ez jakiteko balioko deust.

ZERTZEAN



AMAIA TREJO ALDEKOA

Kolpetik esnatu naiz, arnasestuka eta izerditan. Azkar begiratu dut ezker-eskuin. Ez dakit ametsa edo ametsgaiztoa hasi edo bukatu berri den. Hau ez da nire gela. Ohearen gainean nire furgonetako giltzak baino ez daude. Begiak leihora biratu ditut eta motelaren iragarkiko hizkiak irakurtzean ohartu naiz bart gauean alokatu nuen gelatxoan nagoela.

-Laura, laztana, komunean zaude?

Eskuetan amamak oparitutako pelutxea dakarrela korrika hurbildu eta besarkatu nau alabak.

Bost minututan jaso ditugu gure iraganeko ondasun apurrak motxila zahar batean.

Bost minututan makillatu ezkutatu daitezkeen zauriak.

Kotxean sartu, betaurrekoak jantzi eta bidea marraztu diogu gure askatasunari.

* Arratiako Berbalagunek antolatutako III. Mikroipuin Txapelketako ipuin irabazlea.

* Zertzean atalean argitaratzen doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera ereduari ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

Osasuna munduko ondasuna, dino esakera zaharrak, baina gure osasun zerbitzu publikoak ez dagoz osasuntsuegi eta kezka da nagusi zeanuriztarren artean. Zeanurin mediku barik geratu gara eta ez deuskue ordezkorik ipini. Bien bitartean, herritarrek 3 multsotan sailkatu gaitue eta herritar batzuk Zeanurin artatuak izango dira ordutegi murriztu batez, beste herritar batzuk Igorrera joan beharko dira eta hirugarren multsoak Dimako konsultara, honek dakarzan burukomin eta mobikortasun arazo danakaz.

Zeanuriko Udalak bilerak eskatu dauz osasun ordezkarikaz arazoa al bait arinen konpondu daiten. Datozan egunokaz batzartuko dira eta ia arazo larri hau ahalik eta arinen konpontzen dan. Guzti honen barri herritarrei emon jakie herri bilera batean, bertan zeanuriztarrek euren kezka eta proposamenak luzatu dabez. Herritarrek eurek be euren aldetik erreklamazioak sartuko dabez osasun zentroetan.

Danok bat eginda, defendidu daiguzan gure osasun zerbitzu publikoak eta ozen salatu orokorrean eta bereziki gurea lango herri txikietan emoten diran murrizketak. Zeanurin medikua gura eta behar dogu. Inok ez dagiala gure osasunagaz olgau, geure eskubidea da geure herrian artatuak izatea. Osasun arloko arduradunei konponbidea al bait arinen jartzeko eskatzen deutsegu, konponbide egonkorra, serioa eta luzarorako izango dana, beste esakera batek dinoan moduan: Ez daitela izan, bost xentimoko pupua eta hamar xentimoko trapua!

Arkaitz Estiballes Ormaetxea



Gorosti
LORAZAINTZA
Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
Bidosa Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel.: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisl.com

BEER & EDARIAK
Guillermo 659 48 28 39
Fernando 699 29 67 17
Eduardo 647 72 96 24
Arkaitz 677 46 40 91
Golder 666 58 20 06
Pozuetz poligonoa, 10 LEMOA • beerredonak@gmail.com

agoa
hagin klinika
Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologia
Ortodontzia
Implanteak
Estetika
Bidebarri 1. behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Ikasgata Zerbitzu 101
R.P.S. 31/06

ZEBERIO

Frontoia konpontzeko, liburutegia egokitzeko eta zaharren egoitzarako diru partidak dagoz udal aurrekontuetan

Erredakzioa

Zezeilaren 21ean onartu ebazan Zeberio 2025erako udal kontuak EH Bilduren aldeko botoakaz eta EAJ-PNVren kontrakoakaz. Aurten 1.780.077 euro kudeatuko ditu Udalak, igaz baino 22.000 euro gutxiago.

Auzo asko dituan herri sakabatu da Zeberio eta urtero lez, auzo errepideen konponketarako (80.000 euro), hainbat ekintza urbanistikorako (35.000 euro) eta saneamenturako (15.000 euro) dirua egongo da, baina horrezaz gainera, kirol eta kultura instalakuntza garrantzitsu bi barritzatzeko prozesuei ekiteko diru partidak dagoz: liburutegiaren egokitzapenerako 12.000 euro, eta kirol ekipamentuaren konponketa eta hobekuntzarako 38.000 euro.

Liburutegiari jagokonez, prozesu parte-hartzaile bat abiatzea aurreikusten da, "liburutegiaren kokapena ea egokia dan aztertuko dogu, altzariak eta abar, herritarren parte hartzeagaz". Aurretik liburuak ordenau behar dira, "pilo bat liburu dagoz digitalizau barik, ez dago kontrolik eta lehenengotik zer dagoan jakin behar da eta gero planteau proiektua". Liburutegiaren azpiegutereaz gainera, ekintzak antolatuteko zerbitzua azpikontrautako da. Ermitabarriko frontoiari jagokonean barriz, konponketak egin behar dira, besteak beste, ura sartzean dalako.

Eusebio Aldekoa zaharren egoitzarako be diru partida bat dago. "Udal gobernua ez dau ulertzen zergaitik plaza publikoen laurden bat dagoan hutsik. Hau da, 31 plazatik 20 dira publikoak, Foru Aldundiagaz konzertauak, eta ez dogu ulertuten 20 plaza horreetatik gutxienez 5 zergaitik dagozan hutsik jakin dakigunean itxaron zerrendea dagoala". Hau da, ez

dagoz egon beharko litzatekezan diru sarrerak egoitzan eta gastuak igon dira. Horren aurrean, "Udalak aportau beharko" dauala esan eban EH Bilduk osoko bilkuran. Hori dala-ta, alkateak eskatuko dau Foru Aldundiko diputaduagaz egotea, honek azalpenak emon dagiazan.

Mandoiako parke eoliko

Mandoiako mendilerroan proiektu eoliko bat dagoanez eta maiztean alegazinoetarako epea zabalduko danez "Udalak kontratatu dau aholkularitza bat, tekniko, juridiko eta ingurumeneko, alegazinoak aurkeztu ahal izateko; hau da, proiektua landu eta aukera badago edo balizko alegazinoen aurrean, aholkularitza tekniko bat eukiteko. Horretarako be diru partida bat bideratuta dago, 4.200 euro ingurukoa" azaldu deutso BEGITURI Amaia Bernaola EH Bilduko zinegotziak.

EAJ-ren ezezko botoa

Udal aurrekontuen bozketan, EAJ-PNVk ezezkoa emon eban "hainbat errazoi kezkarriakaitik. Batetik, inbersinoko partidak helburu zehatz barik aurreikusi dira eta jasotako kopuruak ez dira nahikoa oinarriko beharriaz beteteko. Horrez gain, larrizko da Udaletik Eusebio Aldekoa egoitzara dirua bideratu behar izatea, edota zuzenak ez diran diru sarrerak aurreikustea; baina kezkarriagoa da oindino gastu garrantzitsuetan murrizketak izatea. Udal gobernua adierazo dauanez, egoitza honek hilean 5.000 euro inguruko galerak jasaten dauz, eta, orokorrean, ez da jasagarria gaur egungo egoeran. Egoitzaren finantzaketak eta kudeaketak kezka handiak sortzean deuskuz eta txarrena oingoz neurri zehatzik ez izatea da. Egoitzaren etorkizuna zalantzan dago" dinoe EAJ-PNVtik.



ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Aurten Euskaraldia udabarrian izango da

Euskaraldiaren laugarren edizinoa maiatzaren 15etik 25era izango da. Aurtengo leloak, "Elkar mugituz egingo dugu", aktibazinoari, mobimentuari, emozinoei eta batak bestearengan daukagun eraginari egiten deutse erreferentzia.



Erredakzioa

Euskaraldia, euskerearen erabile-rea handituteko, eguneroko harremanetan euskera lehenetsiz, 11 eguneko ariketa edo praktika kolektiboa da. Norbanakoek eta entidadeek hartzean dabe parte; norbanakoek, ahobizi eta belarriprest moduan, eta entidadeek ariguneak sortuz hartzean dabe parte. Aurtengo ediziorako entidadeek izena emon daikie daborduko <https://euskaraldia.eu/entitateak/> estekan; ahobiziek eta belarriprestek, barriz, martiaren 15etik aurrera emon ahal izango dabe izena.

Euskaraldiak hika bultzatuko dau aurten. Izena herriek emon behar dabe eta txapan "h" bat agertuko da "nigaz hika egin

zeinke" esan gura dauana. Daborduko 67 herriek emon dabe izena hika bultzatzeko.

Euskerea aktibau

Euskaraldia ez da bakarrik ariketa egunetara mugatzen dan dinamikea, euskerearen erabilerea aktibetako mobimentua elikatu eta gizartean errotu gura dauan ekimena da. "Euskaraldiaren helburu nagusia hizkuntza ohituraren inertziak astindu eta herritarrek euskera gehiago erabilteko pausuak emotea da, eta, horrez gainera, entidadeek be euskeraz biziteko aukerak eta neurriak hartzea sustatu gura da. Euskaraldiak, modu kolektibo eta sozial baten, tokian tokiko euskalgintza aktibatzea eta alkarlanean jardutea ahalbidetzen dau, euskeraz

bizitea posible egingo daben neurriak eta espazioak sortuz" dinoe.

Lau edizino

Aurtengoa laugarren edizinoa izango da.

Lehen Euskaraldia 2018an gauzatu zan, Euskal Herri guztiko ehunka herrietako milaka parte hartzaileguz. Bigarren edizinoa 2020ko zemendiaren 20tik abenduaren 4ra egin zan, edizino honetan sortu ziran lehenengo ariguneak. Hirugarren Euskaraldia, 2022ko zemendiaren 18tik abenduaren 2ra egin zan, Euskal Herri guztiko milaka parte hartzaileguz. Euskaraldiaren 4. edizinoa 2025ean egingo da, oingoa udabarrian izango da, maiatzaren 15etik 25era, hain zuzen be.

IGORRE

Lehenengoz kintoen eguna ospatuko dabe Igorren aprilaren 12an

Erredakzioa

"Kinto lagune, hau da zure egune" lelopean, Igorreko Udalak, aprilaren 12an, kinto guztien eguna ospatuko dau. Asmoa gainera, Udaleko egutegian egun hau betiketzea litzateke, data zehatz baten, San Kristobal, San Juan edo Inbiu egunak legez. Herritar batzuek aspalditik eskatutako ekimena da.

Hamazortzi urtetik gorako kintada guztiek parte hartzea gura dabe. "Goizeko 11:00k inguruan

Kultur Etxeko plazan geldituko ginateteke bakotxa bere kintadakoakaz eta berbaz gabizan birtartean argazki batzuk atera. Gero txaranga baten laguntzeagaz herritik ibiliko gara eta bakotzak bazkariarena egin dagiala gura dauan moduan" azaldu deutso BEGITURI Ainara Ipiñazar zinegotziak. Arrastian fanfarria eta gero erromeria, eguraldiaren arabera, librean edo aterpean egongo dira. "Txosnea be egongo da erromeriak irauten dauan artean, herritarren parte-hartzeagaz" dino Ipiñazarek.



ARRATIA

Arantzazun, Artean eta Bedian, martitzen karnabala ospatuko dabe

Erredakzioa

Arratia, Ubide eta Zeberion, Aratusteak batez be aurreko astegienean ospatu badira be, martitzen karnabala be, aurten martiak 4, ospatuko dabe Arantzazun, Artean eta Bedian.

Izan be, Arantzazun 18:30ean Herriko Tabernan, Aratusteetako bereizgarri esanguratsuenek ipiniko dabe jai giroa herrian, lehiaketa biren bitartez: Mozorro Lehiaketa eta Tostada Lehiaketa, hain zuzen be.

Artean, egun horretarako umeentzako bertso antzerkia antolatu dau Udalak. Uxue Alkor-

teak eta Maren Basterretxeak, *Alpistegia* ikuskizuna taularatuko dabe, 18:00etan, Kultur Etxean.

Bedian, Aratusteetako jaia

Bedian, martitzen karnabala izaten da Aratusteetako egun nagusia eta egun horretan egingo dabe Aratuste jaia frontoian. 17:30ean, hasiko dira bediazarrak frontoian sartzean eta *photocall*-etik pasau eta desfilerako izena emongo dabe han. 18:00etan, desfilea egingo dabe heritik eta 18:30ean, Gaur jaia umeen jantzialdia egongo da. Txokolatea dastatzeko aukerea be izango dabe 19:30ean.



ARRATIA, ZEBERIO

Arratia eta Zeberioiko ikastetxe publikoetan batez beste irakasleen %80k egin eban greba zezeilean

"Lan-baldintzak hobetu hemen eta orain erabakita" lelopean, LABek, Steilasek, ELAk eta CCOOk deituta, zezeilaren 26 eta 27an, Arratia eta Zeberioiko irakasleek greba egin eban.

Erredakzioa

Lemoako eskolako datu barik –ez emotea ebatzi eben– beste ikastetxeen grebaren jarraipenaren batez bestekoa %80 izan zan. Baina aldea egon zan ikastetxe batzuetatik beste batzuetara.

Artea, Dima, Zeanuri eta Zeberioiko eskoletan, irakasle guztiek egin eban greba eta gitxieneko zerbitzuak baino ez ziran egon greba egun bietan. Irakasle guztiek greba egin gura dabenean, gitxieneko zerbitzuak emotera behartuta egoteagaz desadostasuna adierazo eben ikastetxe batzuetan. Igorreko eskolan, irakasleen %79k egin eban greba 26an eta %80k 27an; Arratia Institutuan, barriz, erdia inguruk. Areatzako eskolan, batez bestekoak %41 lehenengo egunean eta %29 bigarrean izan ziran.

Irakasleen eskakizunen artean, lan hitzarmena eta lan-baldintzak eguneratzea dago; lan kargea arintzea; enplegu publikoa konsolidau

eta bermatzea; erosahalmena berreskuratzea eta lan osasuna, euskera eta hezkidetzeta bermatuteko neurriak hartzea. "Gu gara egunez egun gure ikastetxeetako lanpostuetan Hezkuntza Sailaren itxikeria sufriduten daben irakasleak, beste errealidade bat islatzen saiatu badira be. 15 urte daroguz gure lan-baldintzak arautzen dituen hitzarmenak eguneratu barik. Eta honek eskoletan gure lana modu egokian egitea eragozten deusku" azaldu dabe Steilas sindikatutik.

Bilerak Hezkuntza Sailagaz

Sindikatu honen arabera, urtailerako grebek mahai bi deitzera eta pausu bakan batzuk emotera behartu eban Jaurlaritza. Hezkuntza Sailak, sindikatuak bilera pare batera deitu ebazan baina "zoritxarrez, oindino grebetako eskarrei erantzungo deuten balizko proposamenetatik urrun" eta negoziatzeko benetako asmo barik, "asmoa negoziaketak irudikatzea izan zan" Steilas sindikatuaren arabera.



IGORRE

Ehundaka lagunek babestu eban Kiñu Gaztetxea Igorreko kaleetan

Kiñu Gaztetxearen asanbladearen eta Garbe auzoko eraikinaren jaube legala dan Sabadell Banketxearen arteko epaiketea aprilaren 23an izango dala-ta, asanbladearen aldeko manifestazioa egin zan Igorren zezeilaren 21ean.

Erredakzioa

"Gaztetxeen defentsan antolakuntza eta burrukea" lelopean hartu eban gazteek pankartea eta honen atzetik, adin guztietako ehundaka arratiarrek eta inguruko gaztetxeetako militante ugari babestu eban Kiñu Gaztetxearen proiektua. Legalidade barruan ez izanda be, gaztetxearen eraikina herriarena dala aldarrikatu eban manifestariak ahots batez: "Ezin dauriez ametsak epaitu!".

Manifestazioan umore ona nagusi izan bazan be, kanta eta musika artean, "espekulatuzaileen

podere nahi mugabakoaren" kontra be egin eban mobilizazioa. Holan, petardo eta bolanderaren zarata artean Igorreko banketxeen bulegoak, Sabadellen kutxazaina barne, "bankuak sutara!" eta "aurrera Kiñu" mezuak zein okupazioaren sinboloagaz marraztu ebazan manifestariak, bai eta Bizkaibus bat be. Giro honetan, ehundaka manifestariak Igorre zeharkatu eban Kiñu Gaztetxera sartu arte.

Bertan egindako ekitaldian, manifestariak eskerrak emonda, asanbladakideek "Kiñuren kontrako desalojo prozesua salatu-

teko" beharra aldarrikatu eban, proiektua herri baten ameseta dalako. Jarraian, 2013an eraikina okupau zanetik, bertatik pasau diran militanteak, alkarte eta eragileak, musika taldeak eta bes-telako ekintzen zerranda luzea gogoratu ebazan: "Leku bizibako, ilun eta hotz bat izatetik, aterpe argitsu eta kolorez betetako espazioa bihurtu da". Holan, Kiñu Gaztetxearen zein Euskal Herriko gaztetxe, espazio autogestionau eta herri antolakuntza politikoen aldeko burrukan segiduko dabela berretsi eban: "Ez gara damutuko inoz".



ARRATIA

Egin nirekin ere euskaraz! kanpaina abiatu dau aurten be UEMAK

Beste herrialdeetatik Euskal Herrira etorri, euskera ikasi, eta jente-aurrean beharrean dabizen tabernariak, zerbitzariak eta dendariak dira kanpainaren oinarria, eta horreez erderaz hasten diran euskaldunen aurreretiak gainditzea da helburua.



Erredakzioa

Lehen aldiz 2023ko zemendian ekin eutsan UEMAK Egin nirekin ere euskaraz! kanpainari, euskaldun errazializaduen inguruko aurreretiak gaintzeko asmoagaz. Orduan umeak eta nerabeak izan ziran kanpainaren irudia. Kanpaina honetako protagonistak, barriz, Azkoitia, Mutriku, Ibarra, Tolosa, Arbizu, Etxarri Aranatz, Larrabetzu, Lezo, Lekeitio eta Zaldibiako ostalariak eta merkataria dira. Aljerian, Senegalen, Errumanian, Pakistanen, Brasilen, Bolivian, Sardinian, Uruguain, Mexikon eta Nikaraguan jaio, Euskal Herrira etorri, euskera ikasi eta gaur egun euskaldunak diranak. Euskereak kolore asko dituala eta herritar horreek guztiak

euskaldunak dirala nabarmendu gura dau kanpaineak.

Kanpainaren nondik norakoak azalduteko, kartelak eta diptikoak prestatu ditu UEMAK, baita bideoak sare sozialetan ikusi daitezkezanak.

Euskerea zubi

Euskaldunen aurreretiak gaintzea da kanpainaren helburua. "Askotan, azalaren koloreagaitik edota aurreretiengaitik, erderaz egiten deutsee berba herritarrek eta, holan, zeozelan, kanpotarrak dirala seinalatzen deutsee. Euren, oster, ondo dakie euskera dala zubirik ederrena gure euskal komunidadera sartzeako, eta es-timetan dabe herritarrek eurei be euskeraz egitea. Gustetan jakie-lako, eta euskaldunak sentiduten diralako" azaldu dabe UEMAtik.

DIMA

Iratxe Etxebarriak Bizirik bizi izeneko ikastaroa emongo dau Diman

Gitxieneko kopuruak izena emon ezker, 10 lagunek, martiaren 11n hasiko da ondoizatea eta bizipoza lortzea helburu daukan Bizirik bizi. Ongizatea eta bizipoza barrura begirako ikastaro praktikoa. Ikastaroa Iratxe Etxebarria kazetari eta coachak emongo dau. Ordu eta erdiko sei saio ditu eta 150 euroko prezioa dauka.



Erredakzioa

Saiootan, amasketa ariketak egingo dira, burmuina landu, emozinoak kudeatu, autozaintza antolatu eta norbere burua planifikauko dabe partaideek. "Helburua da bizirik biziten ikastea, modu konziente batean, gure ondoizatearen ardurea hartuta"

azaldu deutso BEGITURI Iratxe Etxebarriak.

Iratxe Etxebarria

Iratxe Etxebarria kazetari arratirra lanaren ardureak jota gaixotu egin zan, eta horrek eragindako hausnarketakaz 7.300 miligramo eszitalopram liburuia idatzi eban buruko osasuna jagoteko zantzu

batzuk emonaz. Prozesu horretan ikasitakoakaz eta beste batzuk lagunduteko "entrenatzaile emozional" moduan egiten dau lan. Bixi bizi webgunean eskaintzen ditu coaching prozesuak.

Ikastaroa Dimako Udalak eta Andraizeak antolatun dabe. "Dimako Udalak eta Andraizeak nire ibilbide profesionalaren barri izan ebenean, nigaz hartu-emonetan ipini ziran. Andra zein gizonentzat dago prestatuta, baina egia da normalean andrazko gehiago etorten dirala. Perfil guztietako andrentzat pentsautako ikastaroa da ondoizatearen gainean sakontzea, perfil guztietako personei jatorkielako ondo" dino Etxebarriak.

Izen-emoteak

Dimoztarrek zezeilaren 18tik 28ra izena emoteko epea izan eben eta oin, martiaren 3tik 6ra arte, dimoztarrek ez diranek izango dabe aukerea. Ikastaroak 150 euroko prezioa dauka eta zatika ordaindu daiteke. Andraizeako kideek %20ko deskontua daukie. Saioak, martiaren 11 eta 25ean, aprilaren 8 eta 29an eta maiatzaren 13 eta 27an izango dira 19:00etatik 20:30era arte, taldea sortu ezker.

LEMOA


Jasangarritasuna landuko dabe Lanzaroten Lemoako Elkartrukeko gazteek garagarriaren 8tik 14ra

Erredakzioa

Bidaia garagarriaren 8tik 14ra izango da eta aurten 2007 eta 2009 bitartean jaiotako gazteek jasangarritasuna landuko dabe Lanzaroten. Parte hartzeako izena emon daiteke martiaren 5era arte www.lemoa.net webgunean edo gizartegintza@lemoa.eus helbidean. Lemoan errolatuta egon behar da alkartrukean parte hartu ahal izateko.

"Etorkizun berdea, orainaldi arduratsua" lelopean, gazteek, besteak beste, Lanzaroteko Biosferearen Erreserba bisitauko dabe. Urtero Gizartegintzak antolatuten dauan bidaia honek gai baten inguruan sakontzea izaten dau helburu, herritar konzientea- goak egiteko.

Hamazortzi lagunek hartu daikie parte Lemoako Elkartrukea 2025ean eta bidaia gehi ostatu- ren prezioa 250 eurokoa da.



MARTIAREN 8A

Igorre eta Bilboko manifestazinoetarako deialdia egin dau Arratiako Mugimendu Feministak faxismoari aurre egiteko

Faxismoaren mehatxuaren aurrean, feministen arteko aliantzak behar-beharrezkoak dirala jakinda, Arratiako Mugimendu Feministak, Martiaren 8an, aurten zapatua, manifestazino bitan parte hartzera deitzean dau: eskualde mailakoan, Igorren eta lurralde mailakoan, Bilbon.

Erredakzioa

Arratia mailako manifestazinoak 13:00etan urtengo da Igorreko Kultur Etxetik, "Faxismoaren kontra, feminismora batu!" lelopean eta Bilboko, 18:00etan abiatuko da Jesusen Bihotza plazatik, "Feminismoaren kontra, ausardia feminista" aldarriagaz.

Igorreko manifestazinoak joateko, 12:45ean, lau zutabe egingo dira. Zutabe bat Kiñu Gaztetxetik urtengo da eta han batuko dira Arantzazu, Areatza, Artea eta Zeanuritik joandakoak. Beste zutabe bat eleizatik abiatuko da Bedia eta Lemoako jenteagaz. Hirugarrena, Torreatik urtengo da, han Dimakoak batuko dira. Igorrekoak, barriz, Beheko plazan batuko dira manifestazinoak hasten dan lekura, hau da Kultur Etxera, joateko. Manifestazinoak ohiko ibilbidea egingo dau: Kultur Etxetik hasi, eleizarantza jo, gasolindegitik bajatu eta Kultur Etxean amaitu. Arrastian, Bilboko manifestazinoak joatera be deitzean dabe feministek.

Diman, ohiturea dan lez, jai giroan, 20:30ean, poteoa egingo dabe Axlorren hasita eta ostean afaria Hermo jatetxean.

Lemoan, Udalak herritarrakaz, bardintsunaren aldeko murala margoztu dau Arlonagusia kalean, futbol zelaiko horman. "Helburua da adin guztietako herritarrak bardintsunaren alde batzea, alkarregaz andrak aitortuteko, ikusiarazoteko eta omenduteko".

Ubiden 12:00etan batuko dira pankartea egin eta 13:00etan konzentrazinoak egiteko.

Zeberion oster, 13:00etan, elkarretaratzea egingo dabe udalaxe aurrean eta 14:30ean, alkarregaz bazkalduko dabe komunitatea sendotzeko. Arrastian, Bilboko manifestazinoak joateko deia egin dabe.

Arratia, Ubide eta Zeberioko herriak morez eta aldarrikapenez jantziko dira egun horretan; askotan, banderola feministak, pai-

Arratia mailako

manifestazinoak

13:00etan urtengo da

Igorreko Kultur Etxetik,

"Faxismoaren kontra,

feminismora batu!"

lelopean

**FAXISMOAREN KONTRA,
FEMINISMORA
BATU!**

12:45ean ZUTABEAK:

- * **Kiñutik:** Arantzazu, Artea, Areatza eta Zeanuri
- * **Eleizatik:** Lemoa eta Bedia
- * **Torreatik:** Dima
- * **Beheko plazatik:** Igorre

**13:00etan Lasarte plazatik
MANIFESTAZIOA**

Arrastien DANOK BILBORA!

Zeozter morea ekarri!

ARRATIAKO MUGIMENDU FEMINISTA

neluak eta beste feminismoaren aldeko adierazgarriak ipiniz balkoi, leiho eta herriko kaleetan. Arantzazun, esate baterako, Uda-

lak lelo feministak eskatu ebazan eta lelo horreek plastiko moreetan idatziko dabez herrian ipinteko. Horretarako martiaren 3an,

17:30ean batuko dira plazan.

Kultur agenda

Urtero legez, aldarrikapen ekin-

teze gainera, konzieniazinoia biltzen dabena kultur ekintza ugari egongo dira Arratia, Ubide eta Zeberion, Emakumeen Nazinoarteko Egunaren inguruan.

Zezeilaren amaieran hasi ziran jarduerok. Bedian, esaterako, zineforuma egin eben zezeilaren 24an eta Makatzak taldeak antolatuta, ekofeminismoaren gaineko berbaldia egon zan Igorren, baina ekintza gehienak martiaren lehenengo hamabostaldian izango dira. Euretako batzuk beren beregi Martiaren 8aren inguruko programazinokoak; beste batzuk ostera, herrietako kultura agendako ekintzak dira, data honeetan morez janzten diranak.

Martiaren 4an, 18:00etan, Mazala Andra Taldeak antolatuta, Aitziber Aginagalde Bilbaoren *Desberdintasunaren sustriak: generoaren eraikuntza* izeneko berbaldia egongo da Zeanuriko Kultur Etxean. Aginagaldek gizartean generoa zelan eregiten dan azalduko dau eta zelan horren bitartez, andra-gizon dikotomian hierarkizatzen, erkatzen, estandarizatzen eta homogeneizatzen dauan gizarte sistema osoa funtzionau arazoten dauan makineria desmontauko dau. Eredu horrek andrak mugatu egiten ditu, egiteko gai dirana edo ez dirana merketan dabena estereotipo eta genero rolen barruan, baita aniztasuna, hautaketa librea eta bere burua bizi eta sentiduteko daukan modua zehaztu be.

Hurrengo egunean, martiak 5, helduentzat ipuin kontaketea egongo da Bediako Liburutegian 18:30ean, Bego Alabazanen *Ipuin berotikoak*, hain zuzen be. "Saio honetan irudimenaren bidaia berezi eta bero baten abiatuko gara atearen bestekaldera, eta, sarrailatik begiratuta, ostendu gura jakuna ikusi ahal izango dogu. Erdu begiratzera; eta gero, itxi zeuon gorputzak imajinazioaren bidea jarraitzen" dinoe Alabazan ipuin kontalariek euren webgunean.

Andren Nazinoarteko Egunaren bezperan, zapatuan, hilak 7, Arantzazun umeentzako ipuin kontaketea egongo da, 18:30ean, presa ondoko ludoteketan. *Ipuinetatik jabekuntzarantz* izeneko saioa eskainiko dau Itziar Saenz de Ojer-ek. Hezkidetarako ipuinak dira eta neska-mutilen eskubide bardintasun eta hezkidetzak bultzatzen dituan baloreak oinarri hartzean ditue. "Ipuinek eskaintzen deuskuen magiaz baliatuz, gorputz eta desira anitzen mundu batera bidaiatuko dogu. Estereotipo zurrunetatik atera; ahultasunak onartu eta errespetetan dabezan istorioetatik, errealdade barriak sortuz" azalduten da sinopsian.

Egun horretan, Artean Irakur-

leen Txokoaren saioa dago 19:00etan Kultur Etxean. Alaine Agirrek bideratzen dauan literatura lanketak, Joyce Carol Oates-en *Bortxaketa. Amodiozko istorio bat* izango dau berbagai.

Martiaren 7an be, 20:00etan, Igorreko Lasarte Aretoan, *Itzal(iko) bagina* bertsoa oinarri daukan antzerki ikuskizuna egongo da. Egungo sistema indibidualisteari kritikea egiteko asmoa dauka lanak. Bertso munduan kokatutako istorio bat izan arren, ez dau bertsoaz berba egiten, harago doazen auzi sozialetara saltu egiten dau: generoa, osasun mentala, familia nuklearra, meritokrazia... Trama honek, "hiru persona(i) bertso munduko zein euren barne munduko bakardadetik kolektibora eroango ditu. Barruan dituen itzalen eta kanpoko errealdadearen linboan alkar ikusten ikasiko dabe" sinopsiaren arabera.

Martiaren 8ko iluntzean, 21:30ean, antzerkia ikusteko aukerea egongo da Igorreko Lasarte Aretoan; Ste Xeito producciones-en *Feminissimas* antzezlan, hain zuzen be. Komedia honek, feminismoa oso modu diferentean ulertuten dabena aspalidiko hiru lagunek kongresu feminista baten topo egitean dauka abiapuntua. Feminismo erradikala, liberala eta *queer* teoriaren jarraitzaileak dira protagonistak eta horrek norberaren buruaren gainean barre egiteko eta teoria eta praktikearen artean dagoan tartearren gainean hausnartzeko aukerea emongo dau. Ana Fernandez, Noelia Blanco eta Stephy Lloryora aktoreek gorputzuko dabez Esther F. Carrodeguasek sortutako personaiak.

Umorezko beste ikuskizun bat egongo da ikusgai hurrengo egunean Ubiden; 18:00etan, Ortuazarren, Mirari Martiarena eta Idoia Torregararen *ZtandaP* binakako bakarrizketea, hain zuzen be. *Bakean dagoena bakean utzi* eta *Luze edo motz* emankizun arrakastatsuen haritik, *EztandaP* ikuskizun honetan be Mirari Martiarenak eta Idoia Torregarai generoa hartuko dabe umoregai eta eguneroko gaiak lehertzen saiatuko dira betaurreko moreak jantzita.

Horretarako, orgasmo arrakala, maitasun erromantikoa, *señorak* eta alkarbizitza izango ditue berbagai, besteak beste. Ikuskizun hau, Ubiden bakarrik ez, Artean be ikusi ahal izango da martiaren 14an, 19:00etan, Kultur Etxean.

Martiaren 9an be, Zeberion, 18:30ean, Babak eltzetik ateratzen jardunaldiari amaierara emoteko, antzezlan bat eskainiko da genero bardintasunaren aldeko burrukea ardatz hartuta Hogarreen. Antzerki honen bidez

andren errealdadea eta oindino gauditua beharreko desbardintasunak hausnartzeko espazioa eskainiko da.

Hurrengo martitzenean, hilak 11, Bediako plazan, 17:30etik 19:30era, Bardintasuna Plazara ekitaldia egongo da, Las Kapritxosas klown talde feministeagaz.

Martiaren 14an, barikuan, Artean *EztandaP* ikuskizunagaz eta Lemoako Kotxepin Kultur Etxean, 20:00etan, Burbuilak taldearen kontzertuagaz gozatu ahal izango da.



Bardintasuna Plazara proiektua abiatu dau Bediak

Bediako Udalak Bardintasuna Plazara proiektua ipini dau martxan 2025 honetan, Bizkaiko Foru Aldundiko dirulaguntzeari esker, herrian bardintasunaren alde egiten diran ekimenak indartzeko.

Andren Nazinoarteko Eguna Martiaren 8ko ospakizunen ildotik, martiaren 11n, era parte-hartzailean eta ludikoan andra eta gizonen arteko bardintasuna Bedian indartzen dabezan proposamenak ikusiarazo eta partekatuko ditue herritarrakaz, baita lorpenak ospatu eta zabaldu be 17:30ean plazan hasiko dan ekitaldi baten. Kapritxosas Klown Talde Feministak bideratuko dau ekintza hau.

Arantza Fernandez Plaza Bediako Bardintasun Teknikariaren arabera, proiektu honeri esker, "urtean zehar ekintza desbardinak aurrera eroango dira, andren ahalduntzea eta parte hartzea handitzeko eta bardintasunaren balioak herriratzeko helburuagaz. Ekintza askotarikoak bideratu gura doguz: tailerrak, solasaldiak, kale ekintzak...".

Bedian III. Bardintasun Plana landuten dabiz eta dirulaguntzeak ekimenak indarbarritzeko eta hedapen handiagoa emoteko aukerea emoten dau.

Kolazinoko Emakumeen Elkarte oin dala urte batzuk sortu zan, ikastaro baten parte hartutako andra batzuen alkar ezagutze eta bateratzeko konpromiso eta lanaren ondorioz. Honetan, Udalak be lagundu dau, bitartekariak eta baliabideak alkarrearen eskura jarritz.

Martiaren 8ko aldarriak plazara

Martiaren 11ko ekitaldian, Martiaren 8ko "aldarriak eta lorpenak ikusiarazo eta ospatu gura doguz, baita oindino lortzeako bidean doguzan erronkei arreteta ipini be. Honetarako guztirako, martiaren 11n, 17:30etik 19:30era Bediako plazan egongo gara. Eta martiaren 8an, aurten zapatua dala aprobeituz, tokian tokiko talde feministek eta andra alkarre egingo dituen deialdi guztiakaz bat egiteko deia" zabaldu gura dau teknikariak. "Bardintasunaren alde lan egiten jarraitzea ezinbestekoa da, egunez egun eta norbere gune eta esparruetatik, banakakoan eta kolektiboan. Eta egun esanguratsuek konpromiso hau indartzeko aukerea emoten deuskue" gehitu dau.

ERAKUSKETEAK

Felipe Manterolaren argazkiak ikusgai Bilboko Arte Ederren Museoan

Funts berriak izenburua darian erakusketea aurkeztu eban zezeilaren 25ean Bilboko Arte Ederren Museoak eta bagilearen 8ra arte egongo da ikusteko aukerea. Gainera, momentu honetan museorako sarrerea debalde da.

Jon Urutxurtu

Ikusgai dagozan lanen artean Felipe Manterola zeanuriztar argazkilariarenak dagoz. Materolarenaz gainera, beste lan batzuk be osotuten dabe erakusketea: Patricio Etxebarriaren artxiboko argazkiek,

Saul Steinberg ilustratzailearen marrazki bildumeak, Maria Dapena margolari eta grabatzailearen artelan, plantxa eta idazkiek, Eduardo Zamacoisen margolanek, Alphonse Guiard argazkilariaren eta bere seme Adolfo Guiard margolariaren lanek, hain zuzen be.

Zezeilaren 24an hedabideei arkeztu jakien erakusketea eta bertan parte hartu eben, Elixabete Etxanobe Bizkaiko Foru Aldundiko Diputadu Nagusiak, Miguel Zugaza Arte Ederretako Museoko Zuzendariak, Gorka Martínez BBK Banka Fundazioko Zuzendariak, Guillermo Zuaznabar museoko kontserbatzaile buruak; Javier Novo konserbazino eta ikerketa koordinatzaileak, Miriam Alzuri arte moderno eta garaikideko konserbatzaileak eta

Mikel Lertxundi teknikariak. Hurrengo egunean, hilaren 25ean, aurkezpen ofiziala egin zan.

Museoko bigarren solairuko lau aretotan, gunea bana eskaintzen deustie artista bakoxtari eta erakusketearen arduradunek adierazo ebenez, "sei erakusketa txiki horreek erakusketa handi bat osotuten dabe".

Manterola familiak Felipe Manterolaren funts osoa itxi dau museoaren eskuetan: 1.000 plaka

inguru, 160 postal, 323 argazki eta argazkiak egiteko erabilten eban tresneria.

Museoko arduradunen arabera, "euskal landa eremuko ingurunearen ikuspegi egiazkoa emoten dabe Manterolaren argazkiek. XX. gizaldiaren hasierako argazkiak dira, gehienak Zeanurin hartutakoak. Badira beste era bateko lanak eta horren adibide bat umea erpetan helduta hegaz darian saiaeren fotomuntaia da".

Felipe Manterola, argazkilari zeanuriztarra

Felipe Manterola Urigoitia (1885-1977) Zeanurin jaio, bizi eta hil zan. 1897an alargundu zan ama eta Felipe, hiru semeetatik zaharrena, mutil koxkorra zala familiaren jaubetza zan estankoz —denda, zapateria, jatetxea, fonda eta tertulia gunea zana— arduratu zan. Baina argazkilari handia be izan zan, zaletasun hori bizibide inoz ez baeban hartu be.

Lehenengo argazkiak 1904an egin zituan eta errebelatua be etxean eukan estudiantxoan egiten eban.

Bere argazkiak hainbat argitalpenetan erabili ziran: Donostiako *Novedades* aldizkarian; *Geografía General del País Vasco-Navarro* entziklopedian; *Eusko Folklore* urtekarian; *Foldlore y costumbres de España* liburuan; Julio Caro Barojaren *Los Vascos* liburuaeren lehen edizinoan; 1978an, José Miguel Barandiaranek zuzendutako *Euskaldunak. La etnia vasca* liburuan...

Bestalde, postalen bildumak be egin zituan; horreetako batzuk Alemanian argitaratu ziran, beste batzuk Frantzia eta Bilbon. Bizkaiko uriburuan argitaratuak Lux etxeak prestatu ebazan, eta postal gehienek euskeraz idatzitako testua eroien behelaldean.

Zezeilaren 25ean zabaldu zan hau, ez da Bilboko Arte Ederren Museoak Felipe Manterolari buruz antolatzen dauan lehen erakusketea, 1983an *Felipe Manterola Argazkiak (1904-1930) Fotografías* erakusketea ipini eban ikusgai eta horren katalogoa be argitaratu eban.

Argazkilaritzearen munduaz gainera, zinearena be ikutu eban eta 1930. urte inguruan 16 milimetroko kamera batez baliatuz, Zeanuriko eguneroko bizitza eta jazoerei buruzko filmaketak egin zituan.

Gerra Zibilak Manterolaren argazkilaritzako lan emonkorra eten eban. 1937ko abuztuaren 4an atxilotu egin eben eta 1940ko bagilearen 12an askatu. Etxera itzuli zanean 55 urte eukazan eta bertan behera itxi eban 1904an hasitako afizinoa; bakar-bakarrik noizean behin familiarterko erretraturen bat egiten jarraitu eban. Edozelan be, gerra osteko urteetan lehenagoko argazki batzuk akuarelaz margotu zituan.



GONTZAL MENDIBIL

Martiaren 15ean aurkeztuko dau Gontzal Mendibilek Bilbon 'Hitza geratzen zait' diskoa

Blas de Otero Fundazioak eskatuta, poetaren hamahiru poema, 9 euskeraz eta 4 gaztelaniaz, musikatu eta *Hitza geratzen zait* izeneko diskoan bildu ditu Gontzal Mendibilek. Diskoagaz batera liburu bat be aurkeztuko da, poemok euskeraz eta gaztelaniaz eta argazkiak batzean dituana. Bilboko Poesiaren Astean, martiaren 15ean, aurkeztuko dabez diskoa eta liburu Bidebarrieta Liburutegian.

Erredakzioa

Blas de Oterok gaztelaniaz idatzi baeban be, bere poemetako asko

euskeratuta dagoz. Izan be, urteetan zehar, idazle ezagunek, Gabriel Arestik, Miren Agur Meabek edo Gerardo Markuletak, esate bate-

rako, euskaratu izan dabe poeta sozialaren lana. Lehendik euskeratuta egozan batzuek, eta Mendibilek euskeratutako beste bik osotuten dabez disko euskerazko kantuak.

Malgosia Ziemkiewicz zeanuriztarraren kolaborazioa
Mendibilek berak musikatu ditu

diskoko poemak. Musikatzea eta poemen aukeraketea izan dala gatxena dino. "Aukeratzeko erispidea poemak izan dira; poemak eta poemen neurriak". Gogoko ebazan batzuk kanpoan geratu dira, musikatzea gatxa izan dalako eta ez dalako gustura geratu. Diskoan agertzen diranak Men-

dibilek sortu eta interpretatuko kantuak dira, beste musikari batzuk lagunduta: Alberto Rodriguez (konponketa musikalak, gitara, mandolina eta grabazioa), Malgosia Ziemkiewicz (biolea eta bibolina); Jon Piris (kontrabajua) eta Angel Unzu (buzukia eta gitarra).

Hitza geratzen zait

Blas de Oteroren poema musikatuak

"Eskuetan neramazkien gizon guztiak, ahoan, begietan, gaur paperean elkartzen dira, badirudi bere ahotsa ikusten ari naizela, ikutzen bere musika...".

Kantuak:

Hitza geratzen zait/Me queda la palabra

Blas de Otero. Itzulpena: Gontzal Mendibil.

Gizatiar poema/Poesía humana

Blas de Otero. Itzulpena: Gontzal Mendibil.

Mademoiselle Isabel

Blas de Otero.

Gallarta

Blas de Otero. Itzulpena: Gerardo Markuleta.

Gogoratzen naiz Bilbon

Blas de Otero. Egokitapena: Gontzal Mendibil.

Guantanamera

Blas de Otero.

Emigrantea/El emigrante

Blas de Otero. Itzulpena: Gerardo Markuleta.

Campo de amor

Blas de Otero.

Deituko digute/Nos llamarán

Blas de Otero. Itzulpena: Gabriel Aresti.

Euri ezgonkorra/Continúa la lluvia

Blas de Otero. Itzulpena: Gerardo Markuleta.

Dadme una noche sola

Blas de Otero.

Inork ez/Nadie

Blas de Otero. Itzulpena: Gerardo Markuleta.

Gabriel Arestiren heriotzean/En la muerte de Gabriel Aresti

Blas de Otero. Itzulpena: Luigi Anselmi.

ARRATIAKO JOTEA DANONTZAT

IKASTAROA

- Martiak 9 domekea
IGORRE 18:00 eskolako aterpean
- Martiak 16 domekea
DIMA 18:00 frontoi txikian
- Martiak 23 domekea
ZEANURI 18:00 plazako frontoian
- Martiak 30 domekea
AREATZA 18:00 herriko eskoletan

*Ikastaroa doan da, eta ez dira 4 ikastaro, baizik eta ikastaro bera herri desbardinetan antolatuta 4 egunetan.

+info eta izen emateak: +34 634 423 539 / www.aikotaldea.eus





BAIETZ 30 LAGUN BARRI EGIN!

2025EAN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAUKA!

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz. Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko.

Horretarako 2025ean egin zaitez Begitu-lagun! kanpaina dauka martxan Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarteak, eta helburua argia da:

Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babestuko dozu?



*Gainera Begituren produktu honeek helduko jatzuz etxera doban.

Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

Zertu Kultur Elkartea Herriko plaza 24. 48142 Artea.

Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefonoa: _____ Helbide elektronikoa: _____

Kontu korrontearen zenbakia: ES _____

Aukeratu urteko kuotea: 40€ 60€ 80€

begitu.eus



Edo e-mailez, bialdu datuok: begitu@begitu.eus helbidera.



IPINI ZURE IRAGARKIA BEGITUN!

Informazioa: **649 979 115**
eta inigoirua@begitu.eus



- **LAN PUBLIKOAK**
- **UR ETA SANEAMENTU SAREAK**
- **BASERRI ETA BASOKO BIDEAK**
- **PABILOIAK ETA URBANIZAZINOAK**



94 631 72 57



ekin@ekinsl.eus



Igorre (Bizkaia)

FAXISMOAREN KONTRA FEMINISMORA BATU!

MARTIAK 8 - ANDRAZKOEN NAZIOARTEKO EGUNA

ERR^oTA
ARRATIAKO GARAPENERANTZA

FAXISMOAREN KONTRA, FEMINISMORA BATU!



GORA EMAKUMEON
EGUNA!

MARTXOAK 8
GUZTIOK KALERA!



FAXISMOAREN KONTRA, FEMINISMORA BATU!

Martxoak 8, Andren Nazioarteko Eguna



649 979 115



inigoirua@begitu.eus

IPINI
ZURE
IRAGARKIA
BEGITUN

**DANS
PIRENAIKA**
ERDU JANTZAN!

Gozatu.
Bizi.
Dantzatu!

DANTZA ASTEBURUA AREATZA 2025 Apirilak 4-5-6

dantza ikastaroak, tailerrak, erromeriak,
mazurka klandestinoak, bazkari herrikoia, dantzapoteoa



+info eta izen emateak: +34 634 423 539 / www.aikotaldea.eus



FAXISMOAREN KONTRA, FEMINISMORA BATU!

Iraultza haszia da

MARTXOAREN 8A

Areatzako Udala Ayuntamiento de Areatza

torontile

10.

Urteurrena

www.estudioduende.com ● MARTIN ORTEGA | 617 332 691

Diseinu grafikoko estudioa **Areatzan**.
+ Irudi korporatiboa. + Web-orrialdeak. + Ilustrazioa.

KIT DIGITAL

ZUREKIN BATERA IREKITZEN DUGU EGUNERO, zure negozioa bultzatzeko

Garibolo jatetxea, 1986az geroztik

LOKALIA

Dena tokiko merkataritzarako.
Dena tokiko merkataritzarentzat.

laboralkutxa.com/eu/lokalia

LABORAL Kutxan geure aletxoak ipini nahi dugu, **tokiko merkataritzak** gure herri eta hirietako aktiborik handienetakoa izaten jarrai dezan.

LOKALIA laguntzeko jaio da, eta irtenbide **integrala** eskaintzen du, gauzak errazteko, lasaitasuna emateko eta saltoki txikien ezaugarri guztiak sendotzeko.

LABORAL kutxa

MARTXOAK 8

GORA EMAKUMEEN BORROKA!




Arantzazuko Udala




MARTXOAK 8

GORA EMAKUMEEN BORROKA!




Ubideko Udala



Graduazioak
Ikusmen terapia
Ikusmen gubitua
Begiko tentsioa
Lentilen adaptazioa
Kireletarako betaurrekoak

Sabinu Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
Tel: 94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

HIGIEZINAK ETA ARKITEKTURA

Belgian design projects *Belgian design projects*

- Salmentan zein aldatu
- Lurrik (erakutsia, landat, basot...)
- Etebizitza (pisuak, baserriak, etxeak...)
- Garaioak
- Lanari komertzialak
- Publizitateak
- Baloratzeak

Irakin berriak erakitzeko
Eneformak
AKTibitate-proiektuak

-Igne diseinua
-CEE eta IEE-ak
-Nirgintza ahoikularitza
-Negozioak irekitzeko kudeaketa



Lehendakari Agirre 23, 48140 - IGORRE - Bizkaia
Telefonoa: 94 673 81 81 - 94 673 81 81
Faxa: 94 673 81 81 - 94 673 81 81
www.arratia.com



Juridikoa · Fiskala · Lanakoa · Kontularitza
Askatasun 28, 1B 48143 Areatza
Tfnoa: 94 673 92 93 Faxa: 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com



Lehendakari Agirre 10 - IGORRE (Bizkaia)
Tel: 94 673 43 81





2025 MARTXOAK 7 · APIRILAK 11

Euskarazko film laburren XXII. zirkuitua

MARTXOAK 14 · 19:30 · Udaletxea (AREATZA)

PROSOPAGNOSIA EKAIN MARTINEZ DE LIZARDUY · **PLAZER BAT** SONIA ESTEVEZ · **BETIKO CAUA** ENKO SAGARDOY · **EUROPA** EKAIN IRIGORIEN · **PENTSATZEN DUT** ALAIA MARTIN/KARMELE MITXELENA/IRAITZ MATEO · **HOR KONPON** JONE ARRIOLA · **GOODBY KEPLER** NEREA AYALA · **UTLANDSK** ALBA LOZANO ·




MENDIA



KOLAZINO MENDI EGUNA
JOMA

MARTXOAK15 DE MARZO

2025 BEDIA
KOPA

24K 10:00
24 km 1700m+

16K 11:30
16 km 900m+

MENDI MARTXA 9:30
16 km 900m+

ANTOLATZAILEAK **BABESLE NAGUSIA**

Logos: JOMA, eldu, and various municipal logos.

Zazpirehun lasterkari Kolazino Mendi Eguneko lasterketetan Bedian

Erredakzioa

Martiaren 15 eta 16an jokatu dira Bedian, IX. Kolazino Mendi Eguneko lasterketak. Guztira zazpirehun lagunek hartuko dabe parte lasterketetan eta mendi martxan. Nagusien lasterketak eta mendi martxea zapatuan izango dira, hilak 15; umeen lasterketak, barriz, domekan. Guztira 700 parte hartzaile inguru egongo dira Bedian, astegoienean zehar. Lasterketa nagusia, 24 kilometrokoa, Euskal Herriko Koparako puntuagarria da.

Aurten, lehenengoz, Kolazino txiki, umeentzako lasterketak antolatu dabez eta Kolazino Mendi Egunak, astegoiena hartuko dau. Zapatuan, martiak 15, 08:30ean, abiatuko dira mendi martxako partaideak; 10:00etan, lasterketa nagusiari, 24K, emongo jako

hasikerea eta 11:30ean, 16K lasterketako lasterkarien txanda izango da. Hurrengo egunean, umeen lasterketak egongo dira; 3 kilometro egingo dabenak 11:00etan urtengo dira eta hamar minutu beranduago 5 kilometro egingo dabezan korrikalari txikiak.

Aurten, lasterketen noranzkoa aldatu egin da, hau da, ibilbidea aurreko urteetako izan arren, bestekaldera egingo da. Antolakuntzeak parte hartzaileei "denporaz etorteko" eskatu gure deute, dana hobeto antolatu ahal izateko. "Tiritu Kultur Elkartekoek beharrez segiduten dabe, jo eta su, ibilbidea ahalik eta ondoen egon daiten. Lan handia egin dabe bide barriak topetan eta haizeak botatuko arbolak bidetik kentzean" azaldu deuto BEGITURI Jokin Zabala antolakuntzakoak.

FUTBOLA

Andrazkoen Arratia Ak eta Lemoako Harrobik garaipena atzen jardunaldian

Andrazkoen Arratia A taldeak lau jardunaldi irabazi barik eroan ostean barrero lortu eban garaipena etxean Oberena taldearen kontra. Lemoako Harrobik be garaipena lortu eban Galdakao B taldearen kontra etxetik kanpo. Gizonezkoen Arratia Ak etxean, eta gizonezkoen Arratia Bk etxetik kanpo eta andrazkoen Arratia Bk etxean euren partiduak galdu ebezan.



Arratia A eta Oberena taldeen arteko partidua.

Datorren partidua Urbietan jokatu dau Galdakao B taldearen kontra martiaren 8an, arrastiko 17:30ean.

Lemoako Harrobi

Lemoako Harrobik martiaren 1eko arrastian jokatu eban etxetik kanpo Galdakao B taldearen kontra eta 1-3 irabazi eban. 23 jardunaldiren ostean 25 puntu ditu Lemoako Harrobik eta hamaigarren postuan dago. Datorren partidua Arlonagusian jokatu dau Usansoloko Umore Ona A taldearen kontra martiaren 8-9ko astegoienean.

Erredakzioa

Andrazkoen Arratia A taldeak martiaren 1eko goizean jokatu eban Urbietan Oberena talde nafararen kontra eta 3-0 irabazi eban. Arratiak lau partidu eroiazan irabazi barik eta 12 puntutik 2 bakarrik lortuta. 22 jardunaldiren ostean 41 puntu ditu Arratia Ak eta bosgarren postuan dago sailkapenean. Datorren partidua garrantzitsua da Arratiarentzat lehen 4 postuetan amaitu gura badau ligea; bere aurretik dagoan Burgosen kontra joatuko dau. Partidua martiaren 9an jokatu dau etxetik kanpo, eguerdiko 12:00etan.

Andrazkoen Arratia B taldeak martiaren 1eko eguerdian jokatu eban Urbietan Bilbao Artizarak C taldearen kontra eta 2-3 gadu eban. 19 jardunaldiren ostean 31 puntu ditu Arratia Bk eta bosga-

rren postuan dago. Datorren partidua laugarren postuan dagoan Berrio Otxoa A taldearen kontra jokatu dau etxetik kanpo martiaren 8an, arrastiko 16:45ean.

Gizonezkoen Arratia A taldeak martiaren 1eko arrastian jokatu eban Urbietan Basconia B liderraren kontra eta 1-2 galdu eban. Aurten gizonezkoen Arratia Ak ez dau partidurik irabazi oindino. 23 jardunaldiren ostean 31 puntu ditu Arratia Ak eta bederatzigarren postuan dago. Datorren partidua lurretako A taldearen kontra jokatu dau etxetik kanpo martiaren 8-9ko astegoienean.

Gizonezkoen Arratia B taldeak martiaren 1eko goizean jokatu eban etxetik kanpo Loiola Indautxu taldearen kontra eta 4-3 galdu eban. 23 jardunaldiren ostean 28 puntu ditu Arratia Bk eta hamaikagarren dago sailkapenean.

Arratiaren futbol kanpua

Arratia Futbol Taldeak aurten be antolatu dau Aste Santuko futbol kanpua. Futbolearen olgau bakarrik ez, urtekerak, teknifikazio zein jolas eta tailerrak egiteko aukerea izango dabe hiru egunez 2013 eta 2020 urteen artean jaiotako neska-mutiek. Ordutegia goizekoa izango da, 09:30etik 14:00etara. Aprilaren 3ra arte emon daiteke izena aprilaren 14, 15 eta 16an Urbietan egingo dan futbol kanpuserako.

Ume bakoitxeko prezioa 60 eurokoa izango da, ordainketa horregaz eguneko armozua eta kamiseta bat be sartzean dira. Izena emoteko 747 452 538 edo 94 631 57 04 telefonoetara deitu edo cdarratia@cdarratia.com helbidera idatzi behar da. Kanpua aurrera eroateko gitxieneko kopurua bete behar da.

Diratzen duen lasterketarako

Gure
ikastetxeak

Euskalduna
kalidazkoak
herrikoia

<p>JB Eguzkiza Meabe HI Tel.: 94 631 32 28 Lemoa</p> <p>Ugarana HI Tel.: 94 631 55 32 Dima</p> <p>Zubialde HI Tel.: 94 648 06 82 Zeberio</p> <p>Zeanuri HI Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri</p>	<p>Ikastola Arratia HI Tel.: 94 428 78 15 Artea</p> <p>Arratia BHI Tel.: 94 428 79 34 Igorre</p> <p>Areatzako Herri Eskola Tel.: 94 673 90 93 Areatza</p> <p>I. Zubizarreta HLHI Tel.: 94 673 60 22 Igorre</p>
---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------



ARKU TIROA

Arku tiroa ikasi eta praktiketako aukerea dago Igorren

2024-2025 ikasturtean eskaini dau lehenengoz Igorreko Udalak arku tiroa praktiketako aukerea. Astelehenero, ordu biko klaseak jasoten dabez hamaika lagunek. Sano kirol ludikoa da eta edonork ikasi eta praktikau ahal dau; izan be, baldintza fisikoak baino gehiago buruko konzentrazioa eskatzen dau kirol honek.

Erredakzioa

Javier Patino Bernalek emoten ditu arku tiro eskolak Igorren. Patino 2012an hasi zan arku tiroan. Teknikaria 1eko akreditazioa lortu eban 2016an, eta teknikaria 2koa 2021ean. Arkularia alkarteko Zuzendaritza Batzordeko kidea be bada.

Arkulariak alkarteko teknikaria zara. Zer da Arkularia alkartea?

Arku tiroko kirol klubaren alkarte bat da. Etxebarrin, Durangon, Zornotzan, Galdakaon, Eibarren eta oin Igorren be bagagoz arku tiro eskolak emoten. Talde polita sortu da hemen.

Arkularia 1988an sortu zan. Bizirik irauteko batu ginan hainbat klub alkarte honetan. Esandako moduan eskolea daukagu eta federauek txapelketetan hartzean dabe parte. Gauza biak daukagu, ondo pasetea baino gura ez dauanak zein lehiatu gura dauanak, aukerea izan dagian.

Hau Igorren barria da baina urte asko daroazue arku tiro eskolak emoten, ezta?

Bai. Arkularia alkartea 1988an sortu zan, baina 2022an Zuzendaritza Batzordea aldatu zan. Udalek ixten deuskuezan espazioei esker bizi gara eta pandemia garaian gatxa izan zan espaziook mantendutea. Kirolari

kopurua be asko jatsi zan ezin zalako arku tiroa praktikau. Hori dala-ta, Zuzendaritza Batzordea be hotzitu egin zan eta batzorde barri egin eta hau martxan barriro ipintea ebatzi genduan.

Zenbat ikasle dagoz Igorreko taldean?

Hamaika. Hamabi hasi ziran baina oin hamaika dagoz eta zabalik gagoz etorri gura dauanarentzat. Hamabi ikasle gora egon ezker, irakasle bi etorriko ginatete, guztiei behar daben arreteta emoteko.

Alkartean 7 irakasle gagoz talde guztientzat eta klaseak bananduten doguz. Eskolak, hasikeran, astean behin bi orduz izaten dira, baina ikasleak hobetu ahala eta gura badau, disponibilitatearen arabera, beste herrietako klaseetara joan daiteke eta astean bi edo hiru egunetan praktikau. Sarritasuna handitzen joaten da, arkulariak maila igon ahala.

Ez daukagu leku bat egunero bertan egoteko.

Sano talde heterogeneo da. Gazteena 9 urteko ume bat da eta ikaslerik zaharrenak 63 urte daukaz. Edade tarte zabala hartzean dau eta trebetasunak, gustuak eta interesak be holan izango dira.

Edadeari jagokonean, eskola kirola dala-ta, gitxienez 8 urte eukitea eskatzen da. Hortik aurrera, muga barik. Igorren zaharrenak 63 urte daukaz 63 baina Durangon 76 ur-

teko ikasle bat be badaukagu. Edade guztietarako materiala eta ekipazioa daukagu; gaitasun fisiko guztietarako, beharizan bereziak daukiezanentzat be bai. Arku tiroa mundu guztiak praktikau ahal dau, bere indarra edo neurria edozein izanda be. Alde horretatik ez dago ezelango arazorik.

Izatez kirol inklusiboa da orduan.

Bai. Desgaitasun bat daukien arkulari askok ez dabe gura izaten kirol egokitan parte hartu, absolutuan baino. Ez da indar fisiko handirik eskatzen dauan kirola, garrantzia handiagoko dauka buruak, kirol psikologikoa da, asko praktikau behar dana.

Gizon eta andren artean be ez dago apenas desbardintasunik. Top 10ean; hamar arkulari onenen artean, gizonak eta andrak egoten dira.

Ha-ta guzti be, kirol minoritarioa da.

Proba egiten daben ia guztiak zaletu egiten dira, baina ikusgaitasuna arazo bat da. Ezin da edonon praktikau, atzen finean arkua arma bat da. Ez da arriskutsua baina ezin da edozein lekutan praktikau. Jenteak ikusten ez zaituan leketan praktiketan da.

Baina probatukoan jentea zaletu egiten dau, oso ludikoa dalako eta denpora pasatzera, dibertitzera edo egunerokotasunetik iges egiteko etorten dira asko.

Baina lehiaketea be badago



beste alde batetik. Lehiaketetan parte hartu gura dabenentzat dago eskolea eta entrenetako eta txapelketetan parte hartzeako aukerea emoten dau. Baita estatu mailako txapelketetan eta Europakoan hartu dau parte. Gorenera heldu daiteke lana eta dedikazioagaz, jakina! Ordu asko sartu behar dira kirol guztietan legez.

Esan dogun moduan, Igorren lehenengo aldia da, jarraitzeko asmorik?

Gure adetik bai. Udalak instalakuntzak ixten deuskuzan bitartean ez dot uste arazorik egongo danik, ez do orokorrean, ikasleak mantendu egiten dira. Batzuk joan eta beste batzuk etorri baina taldeak mantendu egiten dira.

Oindino hazi gaitekez, gu hasi ginanean 55 ginan eta oin 110 inguru, baina lar be ezin gara hazi.

Beti be udalek instalazioak ixten badeuskuez. Guretzat ezinezkoa da-ta, lokal bat erostea Bizkaian.

Udalagaz egitea interesgarria da jentearentzat, merkeago da eta holan ez da batzuentzat bakarrik. Hilean pagau beharrekoa ez da karua eta ez da ekipaziorik edo ezer erosi behar arku tiroan hasteko.

Jakina! Klubak ipinten dau eskuragarri ekipo osoa eta material guztia. Gero, maila altuko ikasleek gura izaten dabe euren ekipo propioa eta hori erosten be lagunduten deutsegu irakasleok. Ze ez da erraza, oso teknikoa da.

Zenbat federadu dagoz Bizkaian?

Ez dakitu zehatz, baina 545 inguru. Uste dot petankan be gehiago izango dirala, kar, kar, kar. Lehen esan deusudan moduan, ikusten ez dan kirol bat da; geziak botaten zabiz eta segurtasuna bermatu behar da. Baina aseguru-etxeek esaten deuskue parte gitxi emoten dauan kirola dala gurea. Klaseetan, hasikera-hasikeratik emoten deusagulako garrantzia handia izan daiteke.



Javier Patino Bernal.

ERRUGBIA

Ekin Eraikuntzak Arratiko Zekorrak errugbi taldeak 24-36 galdu eban Envases R.C. Rioja talde liderraren kontra San Txismen

Erredakzioa

Zezeilaren 22an, Igorreko San Txisme errugbi zelaian jokatu zan Ekin Eraikuntzak Arratiko Zekorrak eta Envases R.C. Rioja taldearen kontrako partidua.

Norgehiagokea 24-36 amaitu zan errioxarren alde. Euskal Liga Senior 2. mailako hamairugarren jardunaldia izan zan zapatu haretakoa eta arratiarrak sailkapenean atzenak

izanda etxean liderrak hartu bae-bezan be, "partidu polita" izan zan, Ekaitz Duñabeitia entrenatzaileak azaldu ebanaren arabera.

Duñabeitia igorretarrak begituri zehaztu eutsanez, partiduak zati oso desbardindu bi izan eban. "Lehenengoan errioxarrek puntu asko lortu ebezan, erritmo handia eukien eta gu oso desordenauta ibili ginan", adierazo eban. Bigarren zatian oster, arra-

tiarrak biziago urten ziran zelaira: "intensidade gehiagogaz urten eta momentu baten 19-29 ipini ginan baina gero atzera bota ziran".

Partidu honen ostean, arratiarrek atzen postuan segiduten dabe hamaika puntuagaz baina bost puntu eskasera dagoz aurreko lau talde, bost jardunaldiren faltan.

Datorren partidua Igorren jokatuko dabe hilaren 8an, 16:00etan, Iruña R.C. taldearen kontra.



ZINE KLUBA

Hilaren 12an izango da Igorreko Zinekluba

Erredakzioa

Hilaren 12an, eguaztena, 20:00etan, izango da zineklubaren hurrengo saioa Lasarte Aretoan. Oingoan, Roy Anderson zuzendariaren *Una paloma se posó en una rama a reflexionar sobre la existencia* (2014) filma egongo da ikusgai. Veneziako Nazioarteko 71. Zinemaldian estreinau zan, eta bertan Film Onenaren Urrezko Lehoia irabazi eban. Komedia eta drama buztartzen ditu filmak.

Sinopsia

Zinema geldoko filma da. Istoria nobedade saltzaile ibiltari biren atzetik doa, Jonathan eta Sam, etxe hondatu batean bizi dira, eta euren txantxetarako produktuetarako (banpiro-hortzak, barrebolsak eta munstro-maskarabat) bezeroak irabazteko egindako saiakerak kontetan dira. Bide horretan hiru bider egiten dabe topo aurrez aurre heriotzeagaz. Zentzu tradizionalen istorio nagusirik ez dagoan arren, eszena guztiak lotuta dagoz.



KONTZERTUA

Burbuilak taldeak kontzertua eskainiko dau Kotxepin Kultur Etxean

Erredakzioa

Martiaren 14an 20:00etan, Lemoako Kotxepin Kultur Etxean Burbuilak taldeak kontzertua eskainiko dau.

Burbuilak, 2022an sortutako taldea edo musika proiektua da. Izaskun del Cerrok eta Irati eta Izar Mendiguren Cosgaya ahiztek osotuten dabe hirukotea. Pianoa, trikitixea, gitarrea eta

perkusinoagaz kantu propioak taularatzen ditue, "ahalduntzeko burbuilak askatuz eta lehertuz".

Ez da lehenengo aldia taldearentzat Arratian; igaz, Artean eta Diman be jo eben eta. Izaskun del Cerro piano-jolea be egon zan Areatzan, Mikel Etxaburu eta Nerea Zuloagagaz *Oroitzen hondarrak nota txikietan* Etxabururen pianoagaz lagundutako poemaren errezitaldian.



IKUSKIZUNA


Umeentzako bertso antzerkia Arteako Kultur Etxean hilaren 4an

Erredakzioa

Martiaren 4an, martitzen karnabal, 18:00etan, Alaia Martin bertsolariaren gidoia daukan *Alpistegia* antzezlan egongo da ikusgai Arteako Kultur Etxean. Amancay Gaztañagaren zuzendaritzapean, Malen Basterrexeak eta Uxue Alkortak egiten ditue antzezle lanak.

Sinopsia

Haira oso ikasle saiatua da eta ikastetxean etenbarik entzuten deutse irakasleei osasuntsu egotea oso garrantzitsua dala baina berak ez dau oso ondo ulertzen osasuntsu berberean esangura... Zer arraio ete da osasuna? Ikastetxeko erantzunek asetzen ez dabenez eta handitan kazetari izan gura dauanez, benetako orburu bat eskuetan, kale galdeketa bat antolatzea ebatziko dau



eta parkean topatzen dituan personei osasuna zelaz zaintzen dan galdetzea. Parke ertzeko balkoi baten bizi dan Lore loroak be izango dau zeresana eta galdera interesgarriak egingo deutsez tarteka.

KULTUREA

Irakurzaletasuna bultzatzea izango dau ardatz Zeanuriko udabarriko kultura programazioak

Erredakzioa

Udabarria Loran izenpean Zeanuriko Udalak martia eta apirilko kultura programazioa eratu dau. Liburuen aurkezpenak, dokumentalak, musika emondialak... Irakurzaletasuna eta kultura bultzatzeko gustu eta edade guztietakoentzat pentsautako eskaintzea da.

Irakurzaletasuna txikitatik bultzatu gura dau Udalak martiaren 6tik apirilaren 3ra, eguenean, Kontuleku izenpean. Saioak ludotekan izango dira 17:00etatik 18:00etara eta 4tik 8 urtera bitarteko umeen familiei zuzenduta dagoz. Hau da, umeak gurasoren edo nagusiren bategaz hartu behar dabe parte. Aitor Ormaetxea ipuin kontalariak eta txotxongilo ikuskizunetako sortzaile, aktore eta teknikariak gidatuko dauz irakurketa saioak.

Kontuleku hasten dan egun berean, martiaren 6an, 19:00etan Herman Melvilleren *Moby Dick* eleberriaren gaineko berbaldia eta musika emondiala egongo da Alvaro Rabelli idazlea eta musika zeltikoa egiten dauan



Aitor Ormaetxea izango da Kontulekuren gidaria.

Sweet Winds taldearen eskutik Kultur Etxean. Rabellik liburua ulertzeko kakoak emongo dauz, gogora ekarriz euskerazko itzulpena dagoala eta abentura liburu bat baino askoz gehiago dala. Sweet Winds-ek bale ehiztarien kantuak eskainiko ditu.

Hamabostaldi honetan, hilaren 14an, ikusi ahal izango da *Momotxorroak*, *kaos baten istorioa* dokumentala eta gero berbaldia egongo da 19:00etan Kultur Etxean. Jon Eguzkiza, Kepa Otaegi eta Andra Mari jantza taldeak, Altasuko Iñauterrien inguruan egindako lanaren

BERTSOLARITZEA

Hilaren 15ean izango da San Josetako bertso saioa Igorren

Erredakzioa

Martiaren 15ean, 18:00etan, izango da bertso saioa Lasarte Aretoan. Arratiako Bertso Eskoleak antolatuta, puntako bertsolariak hartzean dabe parte udabarri atean egiten dan bertso saio honetan. Oihana Bartrak, Sustrai Colinak, Xabat Galletebeitiak eta Alaia Martinek osotuten dabe aurtengo laukotea.

Bartra bitan izan da Bizkako Bertsolari Txapelketako finalean eta Galletebeitia txapelundunordea izan zan 2016an. Colina sei aldiz izan da Euskal Herriko Bertsolari Txapelketan finalista eta bitan Xilaba Bertsolari Txapelketako irabazle. Martin, Gizpuzkoako txapeladuna da. Gai emoi beharretan Igor Menikak jardungo dau.

emaitza da dokumentala.

Beste sei jarduera gehiago

Udabarria Loran-eko programazioa martia osoa eta aprilean zehar luzatuko da. Bittor Kapnagaren gaineko Gontzal Mendibilen ikuskizunak, *Emakume Abertzale Batza 100 urte* liburua-aren aurkezpenak, mitoen gaineko berbaldiak Jon Mentxakatorregaz, *Diagnostico Tolosaldea* Ahoztar Zelaietaren liburu aurkezpenak, *eMcumeak* antzezlanak eta *Kosmetikoak sendabelarrekin* liburua-aren aurkezpenak osotuten dabe udabarriko programazioa.

LABURBIRA

Laburbirako filmak ikusi ahal izango dira Areatzan martiaren 14an

Aurten be ikusi ahal izango dira Areatzan, Taupa Euskaltzaleen Mugimenduak (lehen, Euskaltzaleen Topagunea) antolatuten dauan Laburbirako 8 film laburrak, martiaren 14an, 19:30ean, udaletxeko areto nagusian.

Erredakzioa

Danetariko lanak ikusi daitezke aurtengo Laburbiran; tartean, Europa osoko zine festibaletan ibilbide arrakastatsua egingakoak. Esate baterako, Goya sarietarako hautatutako filmak dagoz, Ekain Irigoienek *Europa* eta Eneko Sagardoyren *Betiko gaua* hain zuzen be; Alaia Martin, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako irabazleak Karmele Mitxelena eta Iraitz Mateogaz batera zuzendutako *Pentsatzen dut*; Itziar Ituño protagonistak daukan *Prosopagnosia* edo *Ut-*

landsk Huezinema jaialdiko lan irabazlea.

Filmak

Ekain Martinez de Lizarduyk zuzendutako *Prosopagnosia* filma barne bidaia baten errelatoa da. Protagonistek prosopagnosia dauka, jentearen arpegiak ezetutea eragozten dauan gaixotasuna.

Stop motion teknikea erabiliz Sonia Estevez zuzendariak, persona bakotzak dituan eguneroko plazer txikiei omenaldia egiten deutse *Plazer bat* izeneko pelikulan.

Goya sarietarako izentautan egon zan Eneko Sagardoyren



Betiko gaua. Film labur honetan Mirenek Elena antzemango dau alokatutako auto bat gidatzen eta hari segika hasiko da gauaren erdian.

Ekain Irigoienek *Europa* be egon zan izentautan Goya sarietarako. Film honek, gerratik igesi Parisera joandako Lubnaren istorioa kontetan dau. Protagonistek gurasoengan dauka pentsamentua eta eurekaz batzea da bere helburua.

Karmele Mitxelena, Alaia Martinek eta Iraitz Mateok zuzendu dabe *Pentsatzen dut* filma. Amatasuna lan munduagaz buztartu ezinda, blokeauta dagoala Bea kontetan deusku pelikuleak. Nora lagunagaz erakusketa batera egindako bisiteak barruak astinduko deusaz.

Jone Arriolak zuzendutako *Hor konpon* pelikulako protagonistak, Rita eta Berta, lapurrak dira eta bizimodu horrek emoten deutse egunerokoan topatzen ez daben adrenalinea. Baina Bertak bizimodua aldatzea ebazti dau bat-batean.

Lau dira *Goodbye Kepler* lanaren zuzendariak: Nerea Ayala, Patricia Fañanás, David Modroño eta Iraia Yarto. Pelikulan, 9 urte espazioan ibili eta gero, Kepler teleskopioa erregai barik geratu da.

Azkenik, Huezinema jaialdia irabazi eban lana, Alba Lozanoen *Utlandsk* ikusi ahal izango da Laburbira zirkuituan. Estiren istorioa kontetan dau: Suedian sei urtez bizi ondoren, Oartzunera itzuli eta kostetan jako egokitzea.

LIBURUA

Joyce Carol Oates-en liburu bat berbagai Artean

Erredakzioa

Alaine Agirrek bideratzen dauan Arteko Irakurleen Txokoa, Joyce Carol Oates-en *Bortxaketa. Amodiozko istorio bat* eleberria landuko dabe martiaren 7an, 19:00etan, Kultur Etxean. Xabier Olarrak ekarri eban euskerara estatubatuarren nobelea.

Sinopsia

Garagarriaren 4a da Niagara Falls-en, New York estaduan. Jai eguna. Hobe Teena Maguirek etxera itzultzeko lasterbidea hartu izan ez baleu. Talde-bortxaketa baten biktima suertatu da parkeko txalupategian. Handik aurrera, bizirik atera izanaz damu da. Bethie alabeak, barriz, ia ezin dau haurtzaroa gogoratu bildur-ikara barik. Identifikatutako gazteak euren etxetik oso hur bizi dira, auzokoak dira ia.

Erritmo errukibako eta sinisgarria darabil Joyce Carol Oatesek Teena, Bethie eta euren erasotzaileen historia garatzeko.

DUNBA

Zulaibarrek Robotika kolaboratiboan espezializazino ikastaroa abian jarriko dau 2025/2026 ikasturterako

Zulaibar Lanbide Ikastegia


Industria etenbarik dabil aldatuten. Lantoki handiez gainera, gero eta enpresa txiki/ertain gehiagotan ikusten doguz automatizautako prozesuak. Horrek enpresen langile kualifikaduen beharra eta gazteentzako lan aukera barriak zabaltzen deuskuz.

Zulaibarren, aro barri honetara moldatu eta *Robotika kolaboratiboan* espezializazino ikastaro barria eskatu deusagu Eusko Jaularitzeari datorren ikasturteko planifikazinoan.

Oin arte industria, robotika tradizionalagaz lotu izan da gehienbat. Seguritasuna bermatu ahal izateko, piztia giltzapetuta izan behar genduan. Robot tra-

dizionalek indar eta abiadura handia izateaz gainera, orokorrean, itsuak, ukipen zentzurik ez daukien dinosauro erraldoiak dira. Langileek, "animaliari" jaten emoteko, hesiko zulo batetik egin behar eben, eta beragana hurre-ratzerakoan, hau "lo" egoanean bakarrik egin eikien.

Baina azken urteotan robotika kolaboratiboaren agerraldia suertau da. CoBot-ak. Honeek, makinak eta personak alkarlanean jarduteko diseinatu dagoz. Robot honeen berezitasunen artean, kaiolatik kanpo lan egin daitekela dago. Langile edo oztopo bat ikusterakoan saihesteko gaitasuna daukie. Arazorik egon eta honen kontra jotekotan, automatikoki geratzeko abilezia



daukie. CoBotek ezingo dabe euren anaia nagusiaren indarra eta abiadura izan, baina sozialagoak eta jatorragoak diranez, langileen artean ibili eta lantegian aldaketa handirik egin barik, oso lagungarriak izango dira errepikakorrek eta astunak diran lanetan.

Arratia inguruko enpresa asko hasi dira holango teknologia xertatzen, baina honeen arazo nagusia, prestatutako profesionalen eskasia da. Ikastaro barri honek hutsune hori betez, ikasleei lan-aukerak zabaltu gura deutsez.

Zulaibarren urteak daroaguz Automatizazio eta Robotika Industrialeko zikloa eskaintzen eta proiektu ugari garatu doguz robotika kolaboratiboan lantzen. Honek ikasleengan interesa biztu dauala konturatu gara eta ziklo horretako ikasleen ehuneko handi batek robotikan espezializetako nahia adierazo deusku.

Arazo nagusia gaur egun eskualdean prestakuntza eskaintzea mugatua dala da, eta ikasle askok kanpora jo behar dabe ikasten jarraitzeko. Ikasketa praktikak

kanpoko enpresetan egiten ditue eta azkenean gure gazteak kanpora joan behar dira lan egitera hemen inguruan egin beharrean.

Robotika kolaboratiboan ez da etorkizuna, gaur egungo errealidadea baino. Ikasle eta profesionalen teknologia barri hau menperatzea funtsezkoa izango dogu eta Zulaibarren prest gagoz erronka honetan gure ardura beteteko.

Aurrematrikulea maiatzaren 5etik 23ra izango da eta informazino gehiago gura izatekotan jo 94 673 91 16 telefonora edo info@zulaibar.net helbidera.



AGENDEA

**MARTIAK 3
ARANTZAZU**

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

17:30ean, plastiko moreetan idatzi udaletxean jasotako lelo feministak. Plazan.

AREATZA

Ikasgela zabalik. Aste barruan 08:00retatik 21:00etara eta astegoienetan, 09:00etatik 21:00etara.

Apirilaren 4tik 6ra Areatzan izango dan Danspirenikako Dantza astebururako izen-emotea zabalik izena 634 423 539 telefonoan edo www.aikotaldea.eus webgunean emon.

Arratiako jotea danontzat ikastarorako izen-emotea zabalik. Ikastaroa, Igorren izango da martiaren 9an; Diman, martiaren 16an; Zeanurin, martiaren 23an eta Areatzan, martiaren 30ean. Izena 634 423 539 telefonoan edo www.aikotaldea.eus webgunean emon.

BEDIA

Ikasgelaren zerbitzua Bete-beteka ikasgelan. Astelehenetik barikura 09:00etatik 16:00etara eta 19:30etik 21:30era; zapatu eta domeketan, 09:00etatik 21:00etara. Izena emoteko eta erreserba egiteko 16:30etik 19:30era liburutegian. Txartela personalizaua da eta liburutegian jaso behar da.

16:30etik 19:30era, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

Hilaren 28ra arte, Euskaraldiaren 4. ediziorako izen-emotea liburutegian edo www.euskaraldia.eus webgunean.

Apirilaren 11ra arte, jaietako Kartel Lehiaketara aurkezteko epea liburutegian.

DIMA

16:30etik 19:30era, astelehenetik egunera liburutegia zabalik.

4ra arte emon daiteke izena Martiaren 8ko andren afarirako Hermo jatetxean.

Hilaren 6ra arte, dimakoak ez diranek emon ahal izango dabe izena Iratxe Etxebarriaren *Bizirik bizi. Ongizatea eta bizipoza* barrura begirako ikastaro praktikoa Dimako udaletxean, 94 631 57 25 telefonoan edo kultura.dima@bizkaia.org helbidean. Prezioa 150 euro.

Martiaren 31ra arte, Dimako jaietako Pelota Txapelketarako izen-emotea 688 653 473 telefonoan.

IGORRE

08:00retatik 22:00etara, ikasgela egunero zabalik Kultur Etxean.

Astelehenetik barikura liburutegia zabalik 09:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 20:45era. Arretea: astelehenetik egunera 16:00etatik 20:30era eta barikuetan 09:00etatik 13:30era.

LEMOA

08:00retatik 21:00etara, ikasgela egunero Kotxepinen zabalik.

16:30etik 19:30era, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

UBIDE

08:00retatik 21:00etara, Lopena espazioa zabalik egunero.

Maiatzaren 1era arte edo dorsalak amaitu arte, maiatzaren 31n jokatu da Ubidestro Trail 2025ean izen-emotea kronoak.com webgunean.

ZEANURI

Batxilera eta unibersidadeko ikasleentzat goizeko 08:00retatik gaueko 21:00ak

arte ikasgela zabalik egunero. DBHko ikasleentzat, astelehenetik egunera 17:00etatik 19:00etara.

Hilaren 10era arte, Haurreskolan apirilaren 1ean hasi ahal izateko izena emoteko epea. Aurrez aurre Haurreskolan bertan, 94 673 97 25 telefonoan, zeanuri@haurreskolak.eus helbidean edo <https://sites.google.com/view/zeanurikohaurreskola/hasiera> estekan.

Hilaren 23ra arte Gorbeia Suzien Skyrace mendi lasterketan izen-emotea zabalik.

ZEBERIO

Liburutegia zabalik. Astelehen, eguen eta barikuetan 16:30etik 19:30era, martitzenetan 16:30etik 18:00etara eta eguaztenetan 17:00etatik 20:00etara.

**MARTIAK 4
ARANTZAZU**

18:30ean, Tostada eta Mozorro Lehiaketak Herriko Tabernan.

ARTEA

18:00etan, *Alpistegia*, umeentzako bertso antzerkia Kultur Etxean.

BEDIA

17:30ean, Aratuste jaia. Sarrera, *photocall*-a eta desfilerako izen-emotea frontoian; 18:00etan, desfilea herrian; 18:30ean, Gaur jaia umeen jantzialdia; 19:30ean, txokolatea.

DIMA

18:00etan, *Klima eta energia plana 2*. saioa Abaroan.

LEMOA

17:30etik 19:00etara, Lemoatx Jubilatuta eta Pentsiodunen Elkarteak hilaren 27an Elizondora antolatutako txangorako izen-emotea jubilatuen etxean.

18:00etan, liztor asiarraren gaineko berbaldia, tranpen barrizatzea eta erakargarri barrien banaketea jubilatuen etxean.

ZEANURI

18:00etatik 20:00etara, Aitziber Aginagalde Bilbaoren berbaldia *Desberdintasunaren sustraiak: generoaren eraikuntza* Kultur Etxean.

**MARTIAK 5
BEDIA**

16:30etik 19:30era, hilaren 14ra arte, bagilearen 30etik garagarriaren 11ra izango dan Haur Txiki Txokorako, udalekuearako eta garagarriaren 12tik 18ra izango dan Bediako Uda Gaztean izen-emoteak liburutegian. Baita Udako ludotekea Ludosport-erako be.

**Doluaren gaineko umeentzako antzerkia Igorren**

Martiaren 14an, 18:00etan, Mar Mar Teatro konpainiak *Elara, bidaia bat izarretara* antzezlan taularatuko dau Igorreko Lasarte Aretoan. Leire Bilbaoren gidoi baten oinarrituta dago.

Maite dan baten bat galtzean, doluak bardin eragiten deutse helduei zein umei, baina azken horreen barneratzeko modua desbardina izan daiteke. Zereginean lagunduteko sortu zan *Elara, bidaia bat izarretara* umeentzako antzezlan. Elara protagonisteak ezetuten dauan bat izar-hauts bihurtzen ikusi eta bere bila espaziora joatea ebatzi dau. Galaxiatik galaxiara eta planetatik planetara bidaiatuko da bizi-tzaren zentzua ulertzen saiatuz, bere dolu igaroten dauan bitartean.

Garagarriaren 14tik 24ra izango da eta talde bi izango dira: Haur Hezkuntzako umeentzat, zirku tailerra eta ipuin kontaketak eta Lehen Hezkuntzan dagozantzat robotika eta patinajea.

18:30ean, Bego Alabazanen *Ipuin berotikoak* helduentzat. Liburutegian.

DIMA

17:00etan, familientzako txotxongilo tailerra Abaroan.

LEMOA

17:30etik 19:00etara, Lemoatx Jubilatuta eta Pentsiodunen Elkarteak hilaren 27an Elizondora antolatutako txangorako izen-emotea jubilatuen etxean.

19:00etan, Jake Mate asanblada irekia Karabie Gaztetxean.

UBIDE

18:00etan, Herri bilera Ubide-Legutio komunikazioaren gainean udaletxean.

**MARTIAK 6
BEDIA**

18:00etatik 18:30era, Eleizalde Bediako Jubilatuta eta Pentsiodunen Elkarteak antolatutako Elizondora urtekerako sarrerren salmentea eskolatan.

LEMOA

18:00etan, Berbalagunek antolatuta III. Tostada Txapelketea Atxeta tabernako plazan.

ZEANURI

17:00etatik 18:00etara, Kontuleku, 4 eta 8 urte bitarteko ume eta gurasoentzat irakurzaletasuna familian bultzatzeko ekimena ludotekan.

19:00etan, Alvaro Rabelli eta Sweet Winds bikotearen *Moby Dick* berbaldia eta musika emonaldia Kultur Etxean.

ZEBERIO

18:00etan, kalejireia, nesken pelota partiduak frontoian, musikea eta kopaua.

**MARTIAK 7
ARANTZAZU**

18:30ean, *Ipuinetatik jabekuntzara* Itziar Saenz de Ojer-en ipuin kontaketea, presa ondoko ludotekan.

AREATZA

21:00etan, Euskelga taldearen kontzertua The Quiet Corner tabernan.

ARTEA

19:00etan, Irakurleen Txokoa, Joyce Carol Oates-en *Bortxaketa. Amodiazko istorio bat* Alaine Agirrek bideratuta. Kultur Etxean.

BEDIA

18:15ean, Ganguren mendi taldeak antolatuta, hilaren 9ra arte, eski urtekerea Baqueira Beretera.

DIMA

18:30ean, Walas magoak urtebete oholtzan. *Bizitza zoroa* kantaren aurkezpena; kartakaz egindako magia. Abaroan.

IGORRE

19:00etan, Igorre Kantuen, kantu poteoa

Gau Lora tabernatik hasita. Kantuen letrak eskuragarri egongo dira papelean edo Kantari app-ean be.

20:00etan, *Itzal(iko) bagina* bertsoa oinarri daukan antzerki ikuskizuna Lasarte Aretoan.

**MARTIAK 8
AREATZA**

Gorbeia Parke Naturalak antolatuta, mendi ibilbidea: Bikotxgane-Arragoeta-Untzueta-Orozko. 14 kilometro, desnibela 600 metro. Autobusa egongo da. Izena aurretik emon 94 673 92 79 telefonoan edo gorbeia.parke.naturala@bizkaia.eus helbidean.

13:30ean, Ian Mason The Wizards abeslariak *Ordalio* bakarkako lehen diskoko kantuen aurkezpen kontzertua eta 20:30ean, Carranza Trio country eta rockabilly taldearen kontzertua The Quiet Corner tabernan.

DIMA

Andren afaria. 20:30ean, poteoa Axlorren hasita; 21:30ean, afaria Hermo jatetxean.

IGORRE

13:00etan, Martiaren 8ko manifestazioa Lasarte plazatik Faxismoaren kontra, feminismora batu! lelopean. 12:45ean, zutabeak. Kinutik: Arantzazu, Areatza, Artea eta Zeanuri; Eleizatik: Lemoa eta Bedia; Torreatik: Dima eta Beheko plazatik: Igorre.

21:30ean, Ste Xeito producciones-en *Feminissimas* antzezlan Lasarte Aretoan.

UBIDE

12:00etan, Martiaren 8a dala-ta pankartea egin; 13:00etan, konzentrazioa.

ZEBERIO

13:00etan, elkarretaratzea udaletxe aurrean; 14:30ean, bazkari partekatua komunitadea sendotzeko. Arrastian, urtekerea Bilboko manifestaziora.

**MARTIAK 9
ARTEA**

13:30ean, Matx eta Xabi Basterraren kontzertua Herriko Bentan.

IGORRE

17:00etan, zinea, *Mufasa. El rey león*; 19:30ean, *La acompañante* Lasarte Aretoan.

18:00etan, Aikok antolatutako *Arratiako jotea danontzat* ikastaroa eskolako aterpean.

LEMOA

10:00etan, Zornotzako tren geltokian. Elkartasun Mendi Martxa Belaxikietara. Bazkaria Karabie Gaztetxean.

UBIDE

18:00etan, Mirari Martiarena eta Idoia Torregarriaren *ZtandaP* binakako bakarrizketea Ortuzarren.

ZEBERIO

18:30ean, antzerkia Babak eltzetik ateratzen jardunaldiari amaierera emoteko. Hogarreen.

**MARTIAK 11
AREATZA**

19:00etan, Jai Batzordearen batzarra udaletxean.

BEDIA

17:30etik 19:30era, Bardintasuna Plazara ekitaldia, Las Kapritxosas clown talde feministeagaz. Plazan.

DIMA

19:00etatik 20:30era, *Bizirik bizi. Ongizatea eta bizipoza* barrura begirako ikastaro praktikoa Iratxe Etxebarriaren eskutik. Lehenengo saioa.

**MARTIAK 12
DIMA**

17:00etan, familientzako txotxongilo

tailerra Abaroan.

IGORRE

20:00etan, zinekubla *Una paloma se posó en una rama a reflexionar sobre la existencia* Lasarte Aretoan.

**MARTIAK 13
BEDIA**

Eleizalde Bediako Jubilatuta eta Pentsiodunen Elkarteak antolatuta Elizondora txangoa.

ZEANURI

17:00etatik 18:00etara, Kontuleku, 4 eta 8 urte bitarteko ume eta gurasoentzat irakurzaletasuna familian bultzatzeko ekimena ludotekan.

**MARTIAK 14
AREATZA**

19:30ean, Laburbira euskerazko film laburren XXII. zirkuitua udaletxean.

20:00etan, The Half Nelsons, americana, country eta folk taldearen kontzertua The Quiet Corner tabernan.

ARTEA

19:00etan, Mirari Martiarena eta Idoia Torregarriaren *ZtandaP* binakako bakarrizketea Kultur Etxean.

LEMOA

20:00etan, Burbuilak taldearen kontzertua Kotxepin Kultur Etxean.

ZEANURI

19:00etan, *Momoxorroak, kaos baten istorioa* dokumentala eta berbaldia Kultur Etxean.

**MARTIAK 15
AREATZA**

10:30etik 14:30era, nekazaritzako elikagaien produktuak eta artisautza azokea plazan (eguraldi txarra egin ezkerre eskolako aterpean).

23:00etan, Tequilas Moonrise taldearen kontzertua The Quiet Corner-en.

BEDIA

Kolazino Mendi Eguna. 08:30ean, 16 km martxea; 10:00etan, 24K mendi lasterketea; 11:30ean, 16K mendi lasterketea.

IGORRE

18:00etan, Sanjosetako bertso saioa Arratiako Bertso Eskolea antolatuta. Oihana Bartra, Sustrai Colina, Xabat Gallettebeitia eta Alaia Martin. Lasarte Aretoan.

**MARTIAK 16
AREATZA**

Gorbeia Parke Naturalak antolatuta, ibilbide gidatua: *Pagomakurre-Urratxa 1.000 urteko historia* Juanjo Hidalgo historialariaren eskutik. 11 km eta 540 metroko desnibela. Izena aurretik emon 94 673 92 79 telefonoan edo gorbeia.parke.naturala@bizkaia.eus helbidean.

BEDIA

Kolazino Mendi Eguna. Umeen lasterketak. 11:00etan, hiru kilometroko lasterketea eta 11:10ean, 5 kilometrokoa. Izen-emotea doban.

DIMA

18:00etan, Aikok antolatutako *Arratiako jotea danontzat* ikastaroa frontoi txikian.

IGORRE

17:00etan, zinea, *Azerik eta Erbi basoa salbatzen dute*; 19:30ean, *Maria Callas* Lasarte Aretoan.

ZEBERIO

08:00etan, plazan. Austarri Mendi Klubaren urtekerea: Trabakua-Oiz-Ziortza. Izen-emotea lokalean hilaren 7an 20:00etatik 21:00etara edo austarriemenditaldea@gmail.com helbidean eta 665 735 054 edo 656 415 597 telefonoetan.

KOMIKIA

Kailo Ren



IRAGARKI LABURRAK

DANERIK

BULEGOA SALDU EDO ALOKATZEN DA

Arrigorriagako erdigunean 43 metro karratuko lokala. Guztiz instalatuta eta altzariz horniduta. Interesdunek deitu 709 651 telefonora.

LONJEA SALDU EDO ALOKATZEN DA

Lonjea saldu edo alokatzen dot Igorreko Lehendakari Agirre 9 zenbakian. Interesdunek 674 607 474 telefonora deitu.

LOGELA BILA

Lan eta ikasi modalidadean dabilen ikasle bat logela bila dabil Igorre edo inguruetan. Gitienez urte birako beharko leuke logela. Interesdunek deitu 613 075 822 telefonora.

KAMARA FRIGORIFIKOA SALGAI

Neurriak: 2 m luze, 1,40 m zabal eta 2,20 m altuera. 2.000 euro. Interesdunek deitu edo mezua bialdu 689 119 930 telefonora.

SALTZEAN DODAZ

Lowepro argazkilaritza motxila gorria, neurriak: 26x34x11, prezioa: 35 euro. Umeentzako tipi ohea. 90x190 cm neurrikoa, 90 cm-ko zabalerako koltxoira. Somierra zoru gainean. Kolorea: egurra eta zuria eta prezioa: 90 euro. Interesdunek deitu 661 273 192 telefonora.

EMOTEN DOT

56 m² lur eta obra-hondakin eskaintzen da betegarria egiteko doban, eroatea barne. Interesdunek 607 482 499 telefonora deitu.

LANA

KLASEAK EMOTEN DODAZ

Lehen Hezkuntzako gradua PT aitamenagaz ikasi dot. Lehen Hezkuntzako ikasleei edozein arlotan klase partikularrak emoten deutesdaz. Interesdunek deitu edo idatzi 693 064 726 telefonora.

IRAKASLE BILA

Batxilergoko lehenengo mailako ikasle bateri matematika emongo deusan irakaslea topetan nabil. Interesdunek deitu edo bialdu mezua 658 727 613 telefonora.

IRAKASLE BILA

LH 5. mailako ikasle bateri ingeleseko klaseak emoteko irakasle bila gabiz. Interesdunek deitu edo idatzi 637 861 936 telefonora.

Zeozter saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@begitu.eus helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1

Areatzako Udalak emondako Dolu bat eta dola bi liburuaren ale bana.

Ainhua Rodriguez (Dima)
Jon Urutxurtu (Zeanuri)



2

Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera Itzal(iko) bagina bertsoa oinarri daukan antzerkirako.

Koldo Zelestino (Dima)
Mikel Urriz (Areatza)



begitu

Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 22 urte eta ehundaka lagun.

94 673 90 13/649 979 115 | www.begitu.eus | begitu@begitu.eus

Dia %
PEDRO AUTOZERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROSER
-
SABINO ARANA 38
IGORRE
-
TEL. 94 631 92 00

Ipini zure iragarkia Begitun
649 979 115
inigoirua@begitu.eus

BIXER TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARO

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia
Tel: 94-673-70-87
Tel: 609-79-40-54

begitu
eus

M8

Emakumeen
Nazioarteko Eguna

#Ni Feminista Naiz

Feminismoa zurekin bat

eskubideak
ANIZTASUNA

TASUNA ONGIZATEA

